# anboto

2009ko urtarrilaren 23a
8. urtea - 315 zk.

**durangaldeko astekaria** www.anboto.org



**Herririk Herri** |4|
Nestor Basterretxearen eskultura ipiniko dabe Otxandioko Andikonan



**Berbaz** |9|
M. Barreña: “Ahotsaken helburua elkarrizketaren alde lan egitea da”

**Erreportajea** |16-17|
Koldo Katxo: “Auzitegiek ez ditue autore intelektualak epaituko”


# Zaharren egoitza egiteko proiektu teknikoa aztergai

Abadiñon eraiki gura daben zaharren egoitzaren azterketa teknikoa egiten dabilz Udala eta Aldundia.

Egoitzaren eraikuntza gastuak Udalak ordaindu beharko ditu eta Aldundia gestinoaz arduratuko da.

Abadiñon kokatuta egongo den arren, egoitzak eskualde osoko edadetuei emongo deutse zerbitzua.

2



Zaharren egoitzako beharginak abadiñarrak izatea gura dauela azaldu dau Jose Luis Navarro alkateak. ANBOTO






## Hiru milioi euroko aurrekontua onartu dau Udalak

**Atxondo** • Eguaztenean egindako udalbatzarrean 2009ko aurrekontuak onartu ditue. Hiru milioi euroko aurrekontuak Gobernu Taldearen aldeko botoei esker egin dau aurrera. Kontra agertu da Eusko Alderdi Jeltzalea, “inbertsino gitxi” dagoela argudiatuz.

4

## Margarita Maturana kaleko bizilagunak etxebizitzekin kexu

**Berriz** • Margarita Maturanako bizilagunek etxebizitzen kalitatearen gaineko ikerketa periziala egin dabe. Azterketak agerian itzi ditu eraikinen hainbat akats eta gabezia. Bizilagunek konponketen erantzukizunak eskatzera norengana jo aztertzen dihardue abokatuagaz.

6

## Etxanoko oraina eta iragana liburu baten

**KULTURA** • Andra Mari Berri auzo elkartearen enkarguz ekin eutsan Mikel Polo kazetari zornotzarrak auzoaren iragana eta oraina aztertzeari. Asteon aurkeztu dau emaitza: 250 orrialdeko liburua.

13

## Abadiñok ez dau ondo hasi xake liga

**KIROLAK** • Mailaz igotzea dabe helburu, baina horretarako bizkortu egin beharko dabe. Lehen jardunaldi bietan galdu ondoren, beheko postuetan dagoz. Zarautzen kontrako porrota aurreikuspen guztietatik kanpora zegoen. Bihar Grosen kontra bilatuko dabe, kanpoan, lehenengo garaipena.

24


• **Abadiño**
Estatu Fondoekin atonduko dabe jubilatuen egoitza barria 2

• **Zaldibar**
Tasatutako 48 etxebizitzetatik 11 baino ez ditue hartu 7

• **Berriz**
Prezio justuko denda zabalik 6

# HERRIRIK HERRI

ABADIÑO

## Zaharren egoitza eraikitzeko azterketa teknikoa egiten

Laster prest izango ei dabe teknikariek zaharren etxea eraikitzeko azterketaren inguruko txostena

Gobernu Taldearen aurreikupenen arabera, Tornosolo trinketearen ondoko lursailean eraikiko dabe zaharren egoitza, lehenago babeseko etxebizitzak eraikitzera bideratzekoa zen jabetza publikoko lursailean. Bertan, asteon Navarro alkate independienteak zabaldu dauenez, Abadiñoko Udalaren kargu joango da egoitza hartuko dauen eraikina altxatzearen kostua, eta baita bertara ura eta saneamendua helarazoteak dakarrena be.

**Zamudiokoa eredu**

Eraikinak zer baldintza eta ezaugarri izango dituen finkatzeko, Udaleko eta Aldundiko teknikariak azterketa burutzen dabilzela azaldu deuskue. Tornosolo trinketearen ondoko lursailean eraikiko daben zaharren egoitza egiteko, eredu moduan orain dela gitxi Zamudion zabaldu dabena hartu dabela azaldu dau Navarrok.

Durangaldeko nagusiak hartuko dituen zaharren egoitza be, Zamudiokoa lez, "behar besteko zabala, modernoa eta baliabide nahikokoa" izatea helburu dabela nabarmendu dau Jose Luis Navarro alkateak. Eskualde guztiari zerbitzua emongo deutsan zaharren etxea izango dela be azpimarratu gura izan dau, Abadiñoko herritarrekin bakarrik ez dira-eta beteko aurreikusten dituen ehundik gora plazak.

**Lehenago babeseko etxebizitzak aurreikusita zegozen lursailean eraiki gura dabe zaharren etxea**

Navarrok dinonez, zahar etxearen gestinoa Bizkaiko Aldundiaren esku izango den arren, bere taldearen helburua "zaharren egoitzan beharrean arituko diren langileak abadiñarrak izan daitezela" ziurtatzea izango da.

Urrian, udalbatzarrera "urgentziazko gai" lez eroan eban oposizinoko talde jeltzaleak nagusien egoitza bertan eraiki daian lursaila Udalak itzi zeien eskaria. Durangaldean biztanleko dagoen nagusiendako egoitzako plaza kopuru murritza handitzeko helburuagaz eraikitzeko asmoa dau Aldundiak nagusiendako egoitza, eta Abadiñon egin zeiala ziurtatzea zeukan mozinoak helburu, udalbatzarrean azaldu ebenez.

Jabetza publikoko lursaila Bizkaiko Aldundiaren esku iztea EAJ eta indepedienteen aldeko botoekin onartu eben, eta kontrako botoa emon eben ezker abertzaleko lau zinegotziek. Udalbatzarreko aitatutako erabakia hartuta, azterketa teknikoak martxan ipintzea izan da, beraz, emondako lehenengo pausua. ■ I.E.



Tornosolo trinketearen ondoko lursailean eraikiko dabe zaharren etxea. Iban Gorriti

**Abadiñoren kargu joango da zaharren egoitza hartuko dauen eraikinaren kostua, eta Aldundiak gestionatuko dau**

### Baserritarren eta animalien jagolearen eguna izan zen zapatua



I.Gorriti

Zapatuan ospatu eben baserritarren eta animalien jagolearen eguna Urkiolan: San Anton Abad gogoan hartzeko eguna izan zen zapatuan Urkiolan. Ohikoa denez, herritar ugari batu zen zapatuan bertan zein domekako errepikapenean. Usadioari eutsiz, ogia eta baserrietan ekoiztutako bestelako produktuak be bedeinkatu zituen Urkiolara joandakoek. Domekan, dantzariak izan ziren, eta irudiko San Anton errifa be egin eben Urkiolan batutakoek.

## Lau egitasmo prest Estatu Fondoagaz finantzatzeko

Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondoaren diru-laguntzak jasotzea itxaroten daben lau egitasmo

Espainiako Estatuak bideratutako Tokiko Estatu Fondotik herrian egin beharreko inbertsinoak finantzatzeko egitasmoak aurkeztu dituen eskualdeko gainerako herrietan ez bezala, proiektuak udalbatzarrean aurkeztu barik onartu ditu Abadiñoko Udaleko Gobernu Batzordeak. Gobernu Taldeko bozeroale lez Jose Luis Navarro alkateak esan deuskunez, Hirigintza Batzordearen oniritzia jaso ondoren aurkeztu ditue proiektuok Estatuaren diru-laguntza jaso ahal izateko; egitasmook diru-laguntza jaso ahal izateko aurkezteko, tramiteak arintzeko helburuz jardun dabela modu horretan azaldu dau alkateak.

**Matienako jubilatuen etxe barrian inbertitzeko asmoa daukie, besteak beste, Tokiko Estatu Fondoen diru-laguntza**

**Hirigintza Batzordearen oniritzia jaso daben lau egitasmo aurkeztu dituela dino Gobernu Taldeak**

Lau dira Udalak Estatu Fondoaren diru-laguntza jasoz finantzatu asmo dituen udalerrirako proiektu eta inbertsinoak: eraikin batetik besterako aterpe bat eraikitzea Zelaietako Eskolan, Jubilatuen Etxea atontzea, Juan Antonio Untzueta kalea konpontzea, eta, Sagasta auzoko saneamendua eta argiterian hobekuntzak egitea.

Diru-laguntza horreen bitartez, Jose Luis Navarro alkatearen berbetan jaso dogunez, Jubilatuen Egoitza hartu daian egokitzen dabenean behin-behinean hartuko dau eskolako eraikin zaharrak zeregin hori.

Oraingoz topatu daben irtenbidea da Jubilatuen Egoitza eskola zaharraren eraikinera eroatea, eta Estatu Fondotik jasotako diruagaz finantzatu gura dau Gobernu Taldeak aldaketa. Izan be, orain hilabete batzuetatik Jubilatuen Etxea hartuko dauen beste leku bat topatu beharrean izan da Abadiñoko Udala, Osakidetzak Matienako Osasun Zentroa zabaltzeko eskatu eta gero. ■ I.E.

**DURANGALDEA**

Asteon AHT Gelditu! Elkarlanak emondako prentsaurrekoan, gogor salatu dau zapatuan Urbinan (Gasteiz) gertatutakoa. Elkarlanak azaldu dauenez, manifestazinoaren ondoren herritarrek burututako desobedientzia zibilaren aurrean Ertzaintzak erakutsitako "ankerkeria errepresiboa" salatu gura dabe: "Ertzaintzaren jarrera lekuz kanpokoa izan zen". Taldekideek zapatuan Ertzaintza Urbinan "milaka pertsonei oldartzearen" erantzukizunak eskatu ditue.

Prentsaurrekoan azaldutakoaren arabera, "jarrera horregaz AHTaren aurka irmotasunez dihardueenei zigor eredugarria emon gura deutseela zirudien". Hainbat zauritu eta 8 atxilotu izan ziren Urbinan. Atxilotuen artean, 41 urteko durangar bat be Gasteizera eroan eben. Jakitera emon dauenez, Urbina herrian "dena amaitu zela" zirudienean atxilotu eben. Astelehen arratsaldean konfidantzazko abokatuagaz berba egiteko aukera izan eban, eta epailearen aurrean deklaratu ondoren aske itzi eben gainerako atxilotuekin batera, epaiketaren zain. Durangar horrek poliziaren jarreraren helburua jentea izutzea izan dela azaldu deusku: "Aurka bazagoz hau gertatu leikizula esan gura izan deuskue".

# Urbinan gertatutakoa gogor salatu dau Elkarlanak

Zapatuan atxilotutako zortzi lagunetako bat durangarra da. Astelehenean aske itzi eben.

Urbinako gertaeren atzean AHT Gelditu! Elkarlanak abiadura handiko trenaren aurkako mogimendua "kriminalizatzeko" asmoa ikusten dau, zortzi atxilotuak Audientzia Nazionalera eroateko saiakeran.

**Urbinan Ertzaintzak izandako jarrera salatzeko, Durangon eta Elorrion elkarretaratzeak antolatu ditue asteon**

**Helburua AHTaren aurkako mogimenduari "zigor eredugarria" ezartzea izan dela dino Elkarlanak**

**Mobilizazinoak eskualdean**

Urbinako atxiloketak salatu guran, Durangaldeko Elkarlanak elkarretaratzea antolatu eban astelehenean Andra Marian. Bertan batutako 70 lagun inguruk manifestazino isila egin eben Alde Zaharrean. Elorrion be kontzentrazinoa egin eben.

**Komunikabideen jarrera**

Elkarlanak gertatutakoaz Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emondako bertsino ofiziala eta komunikabide gehienek kontatutako "gezurrak edo, kasu onenean, erdi-egiak" kritikatu ditue. ■ J.G.

**MAÑARIA**

## Dantzariren teilatua barriztu guran

Eguazten honetan bidali dau Udalak, joan zen asteko udalbatzarrean onartu eben lez, Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondotik diru-laguntza jaso ahal izateko hautatuko egitasmoa: Dantzari izenagaz ezagun den eraikinaren teilatua konpontzeko beharrezko diru-laguntza Estatu Fondotik batzeko asmoa dauka Mañariko Udalak.

Horrenbestez, eta Jabier Arteaga alkateak nabarmendu dauenez, 83.000 euroan zehaztu dabe lanok izango leukien kostua, eta halantxe aurreikusi dabe. Apirilerako lanak esleituta izan gura ditueela azpimarratu dau Arteagak, eta diru-laguntzak zehazten daben moduan, aurten burutu. ■ I.E.

**ELORRIO**

# Biribilgune barri bana Miotarako irteeran eta San Pio kalean

Miotarako biribilguneak ez deutso ezertan eragingo Kurutzondoko parkeari

Estatu Fondotik 1.255.000 euro egokitu jakoz Elorriori, eta horreekin zer proiektu egin erabaki eben azken udalbatzarrean. Batetik, Esteibarlanda, Ibarra, Labakua eta Urarka kaleak berriro urbanizatuko ditue, eta biribilgune bat egingo dabe Miotarako irteeran. Bestetik, San Pio X inguruan, Durangotik Elorrioko sarreran –gasolindegia baino apur bat aurrerago– beste biribilgune bat egingo dabe.

Kaleen urbanizazinoak eta Miotako irteerako biribilguneak 992.000 euroko aurrekontua dauka; San Piokoak, barriz, 577.000 eurokoa. Bien batura jasoko dabena baino handiagoa denez, falta dena Udalak ipiniko dau. Lanak, beranduen, apirilean hasi behar dira eta 2010eko lehen hiruhilabetekoaren barruan amaitu. Proiektu biak aho batez onartu zituen udalbatzarrak.

Urarka kalearen ondoko biribilguneagaz trafikoa bigundu eta bideratu gura dabe. Gainera, lanek bideari bakarrik eragingo deutsie: "Kurutzondoko arboladia ez dogu ikutuko. Kontuz jardun dogu ingurune hori errespatu daiten", dino Niko Moreno alkateak.

Bestalde, Ibarra, Labakua eta Urarka kaleetan urbanizazino lanak egingo ditue, batez be, irisgarritasun arazoak konpondu guran. Horrez gainera, arbolak landatu eta dotoretu egingo dabe boulevard itxura emonez.

San Pio X kaleko biribilguneak trafikoa astirotzea eta ondo banatzea dau helburu.

**Bide biak lotzeko asmoa**

Durangotik eta Berriztik Elorriora datozen bide biak lotzeko aspaldiko asmoa berriro hausnartzen dabil Udala, baina ez edozein modutan. Sasoi batean, Aldundiak bide biak lotzen zituen lotunearen plana egin eban. Plan horrek, ordea, horixe hartzen eban ildo nagusi legez: bide biak lotzeko beharra. Udalak, barriz, beste erizpide batzuk be kontuan hartu behar direla dino eta, gitxienez, plana berraztertu egin behar dela. Barria egitea be ez dabe baztertzen: "Elorrio barruko kale bat izan daiten gura dogu". ■ J.D.

**Urarka, Ibarra, Labakua eta Esteibarlanda kaleak urbanizatuko ditue 992.000 eurogaz**

**San Pio X kaleko sarreran egingo daben biribilguneak helburu bi ditu: trafikoa astirotzea eta bideratzea**



Miotarako bidea hasten den tokian egingo dabe biribilgunea, ondoko arboladia errespetatuz.

Bizkaiko eta batez ere Durangaldeko kultura bultzatzeaz arduratzen den elkarte garrantzitsu batek honako langile hau behar du:

GERENTEA

Lanpostuaren eginkizunak honako hauek dira: elkarteak antolaturiko jarduerak hedabideetan sustatzea, burutzen diren ekintzak indartzea eta proiektu berriak dinamizatzea, babesle berrien bilaketa, administrari eta kudeaketa lanak aurrera eramatea, kultura-arloko erakunde publikoekin harremana izatea, eta abar.

Baldintzak:

- Erdi- edo goi-mailako ikasketak izatea.
- Euskal kultura ezagutu eta harekin sentikor izatea
- Profil ekintzailea izatea
- Bizkaia edo Durangaldean bizitzea aintzat hartuko da
- Gidabaimena izatea
- Kontabilitatearen kudeaketan oinarrizko ezagutza edukitzea
- Lidergo eta komunikazio ahalmena edukitzea
- Taldeen kudeaketan gutxienez 3 urteko esperientzia

Lanpostu egonkor bat eskaintzen da, garapen pertsonala eta profesionala ahalbidetzen duena, herritar eta gizarte-eragile ezberdinen parte-hartzea bultzatzen duen etorkizuneko proiektu batean.

LKS

30 eguneko epean, aurrez aukeratutakoei bakarrik erantzungo zaie. www.lks.es

Interesa izanez gero, bidali curriculuma: seleccion@lks.es; edo LKS - Parque Tecnológico de Zamudio - Edificio 207 - A. 48170 ZAMUDIO (BIZKAIA) 03/09 erreferentzia zehaztuz.

ATXONDO

# Igazkoa baino aurrekontu apalagoa onartu dau Udalak

Guztira, hiru milioi euroko aurrekontua onartu dau Gobernu Taldeak 2009ko udal-jardunerako

Bizi dogun ekonomia krisiaren eraginak Udaleko kutxako sarreren atalean izango dituen ondorioak aintzat hartuta atondu dabe eguazteneko udalbatzarrera eroandako urte honetarako aurrekontu proiektua; horixe azalduz ekin eutsan Gobernu Taldeak bere proposamena aurkezteari. Aurtengo inbertsino eta zerbitzuak betetzeko, igazkoak baino diru-kopuru apalagoekin lan egitea aurreikusi dabe aurten.

Guztira, 3.000.000 eurora ailegatzen ez den aurrekontua onartu dabe, Gobernu Taldeko bost zinegotzien aldeko botoagaz; aurrekontu proposamenaren kontrako botoa emon dabe, aldiz, oposizinoan dagozen jeltzaleek.

**Proposatutako aurrekontuan inbertsino falta dagoela salatuta, kontrako botoa emon dabe jeltzaleek**

**Herritar guztiek eskuragarri ditue aurrekontuak, Gobernu Taldeak proposamena egitean gogoratu dauenez**

Hiru ordu iraun dauen udalbatzarrean, Udaleko alderdi bien aurtengo urterako aurreikuspenen inguruko azalpenak entzun ditue dozena bat herritarrek.

Horrela jakin dabe, esaterako, joan barri den urtean baino diru gitxiago aurreikusi dauela Udalak inbertsinoetarako: igazko martxoan onartutakoan, bi milioi eurotik gora aurreikusten ziren inbertsino errealen atalean; milioi eta erdi dira, aldiz, 2009 urteari jagokozenak. Urte honetarako ditueen asmoen barri emoterakoan azaldu dau Gobernu Taldeak, batetik, igazko aurrekontuak martxoan aurkeztu bazitueen aurten lehenago egiten saiatu direla, eta igazkoaren aldean aurrekontu proposamen honetan kontzeptuak "fintzen" edo gehiago zehazten saiatu direla, bestetik: 'Denetariko gastuak' lako atalak desagertuarazoz.

Bestalde, Udalak urte honetan batuko dauen diru kopuruaren aurreikuspena nabarmen txikiagoa egin dabe: herrian egingo diren obretatik Udalak jasotzea itxaroten eban diru-kopurua (zeharkako zergak) hiru bider handiagoa zen igaz. Bizkaiko Aldundiak Udal Kutxaren bitartez Atxondoko Udalari helarazoko deutsan kantitatea, igazkoa baino 100.000 euro gitxiagokoa izatea itxaroten dabela azaldu dau, gainera, Dabid Cobos alkateak.

Halan gura daben herritar guztiek eguaztenean udalbatzarrean onartutako aurrekontuak eskuragarri ditueela gogorarazo dau Gobernu Taldeak. ■ I.E.

IZURTZA

## 'Nafarroaren konkistak 500 urte' mozinoa

Gaztelak Nafarroa konkistatu ebala 500. urteurrena gogoan hartuta, *Amaiur 1512-2012 Nafarroa Bizirik* ekimenak "gure Estatuaren independentzia defendatu ebenei agur eta ohore" egiteko otsailaren 1erako Nafarroako Amaiur herrian antolatutako ekitaldiagaz bat egitea proposatzen dauen mozinoa aurkeztu eban Gobernu Taldeak joan zen asteko udalbatzarrean. "Amaiurko gazteluan Nafarroaren independentziaren alde bizitza emon ebenen kemena gogoan, euskaldun guztion Nafarroa" aldarrikatuko dabe otsailaren 1ean Baztango herrian. "Duela 500 urte galdutako subiranotasuna berreskuratzeko" deia izango da. ■ I.E.

GARAI



Urtero legez, jente asko batu zen San Joan Ebanjelariaren elizpean errematarako. Iban Gorriti

# San Anton egunez, gaztaia 51 euroren truke

Aurten, 1.000 euro batu ditue San Anton eguneko ohiko errematan

Zenbaki borobila: 1.000 euro batu ditue aurten, usadioari eutsiz, Garain antolatutako San Anton eguneko errematan. Denera, 30 produktutik gora izan zitueen enkantean hartzeko San Joan Ebanjelariaren elizpean batutako bisitariek. Eguraldia be lagun izan eben, gainera. Oilaskoa eta enkantean jarritako gaztaietariko bat izan ziren garestien ordaindutakoak: 51 euro.

Batutako dirua, barriz, atal bitan banatuko dabe. Sakristauaren etxeko teilatua konpontzeko erabiliko ditue 500 euro, batetik. Bestetik, gainerako 500 euroak Palenken (Ekuador) dihardueen misiolariei helarazoko deutseez, hango proiektuak garatzeko.

**Erantzunagaz pozik**

Gaztaia, pastelak, txorizoa, ogia, esnea, intxaurrak… makina bat produktuko loteak erosteko aukera izan eben San Anton egunez; oilaskoa eta untxi bi be bai, besteren artean. Antolatzaileen berbetan, krisia igarri egin dabe, apur bat baino ez bada be.

**Sakristauaren etxeko teilatua konpontzera eta Palenkera bideratuko dabe dirua**

**Denera, 30 produktutik gora izan zitueen enkantean hartzeko San Joan Ebanjelariaren elizpean**

Urtez urte erramata antolatzen dihardueenek azaldutakoaren arabera, "urteetan 600-700 euro batu izan dogu. Igaz, barriz, inoiz baino diru gehiago; ia 1.300 euro. Halan be, urte berezia izan zen, Palenkeko (Ekuador) misiolariendako eta bertako baserritarrendako batu zen dirua, eta jentea kontzientziatuta zegoen. Aurten, 1.000 euro batu doguz, ohi dogun baino gehiago".

Halan be, aurtengoan, San Anton zapatua izanda, diru gehitxoago batzea be itxaroten ebela aitortu dabe antolatzaileek, jentearen erantzunagaz pozik agertu arren. ■ J.D. / A. B.

OTXANDIO

## Basterretxearen eskultura lana Andikona plazan

2011ko uztailaren 22an Otxandio bonbardatu ebela 75 urte beteko dira. Urtemuga hori gogora ekarri guran, Nestor Basterretxeari (Bermeo, 1924) Andikona plazan jartzeko bonbardaketan hildakoen oroimenezko eskultura sortzea proposatu deutso Udalak. Orain hile bi eskultoreak bere obra biren zirriborroak aurkeztu zituen, eta Udalak bietako bat aukeratu ondoren, maketa egiteari ekin deutso.

Herriak bonbardaketaren ondorioak gogoan dituela azaltzeko, eskultore ezaguna Santamañetan Andikonako omenaldira gonbidatu eben igaz. Udal ordezkarien esanetan, "Basterretxeak hunkituta entzun zituen musika bandaren abestiak bonbek hildako otxandiarren izenak irakurtzen zitueen bitartean". Gaineratu dabenez, bere familiak Otxandiogaz daukan lotura dela-eta, "ilusino handiagaz" hartu dau enkargua. Izan be, artistaren aititaamamak errementari izan ziren Otxandion. Basterretxeak lau urte ingurugaz Otxandion uda pasatu izanaren oroitzapena be ez ei dau ahaztu. ■ J.G.

**Nestor Basterretxeak bonbardaketan hildakoen oroimenez eskultura ipiniko dau Andikona plazan**

EGIA AROZTEGIA EBANISTERIA
ZUZENEKO SALMENTA
Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurrira - Oholtzak
Tel. eta Faxa: 681 77 46
Etxea: 670 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54
Tabira kalea, 54
48200 DURANGO

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
CATALANA OCCIDENTE

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41


Inoiz ikusi gabeko
deskontuak
Berriztatu zure sukaldea eta 3 fokoko
indukzio plaka bat oparituko dizugu
%17ko
deskontua
%10eko deskontua • 20 hilabetetan ordainduta
larunbatetan zabalik 10:30etik 13:30era • 20 hilabetetan ordaindu interesik gabe
*Martxoak 31 arte, sukalde osoa erostean
BERMEA
9
urteko
1956az gero
Viedsa cocinas
FABRIKA - Durango - Elorrio errep. ABADIÑO - 902 12 10 24 - info@viedsa.com www.viedsa.com

BERRIZ

# Margarita Maturanako bizilekuen kalitatea ezbaian

Bizilagunek eskatutako ikerketa perizialak askotariko akatsak itzi ditu agerian



Haurreskola eraikitzen dabilzen goiko aldean dagoz Margarita Maturanako etxebizitzak.

Margarita Maturanako etxebizitzak orain hiru urte eraiki ziren. Hasikeratik bertatik, bizilagunek urritasunak ikusi zitueen bizilekuetan. Enpresa eraikitzaileari horreek konpontzeko esan eutsien, baina konponketak eskasak izan ziren. Ondorioz, plaza ondoko lau blokeetako bizilagunek –beste hiru dagoz gorago– azterketa periziala egitea erabaki eben. Azterketak jasotzen dauenez, behar diren konponketek 600.000 euroko inbertsinoa eskatzen dabe. Bizilagunak abokatuak egoera sakon aztertu zain dagoz, erantzukizuna nori eskatu erabakitzeko.

**Abokatuak egoera sakon aztertu zain dagoz bizilagunak, erantzukizuna nori egotzi erabakitzeko**

80 etxebizitzatik gora dira kaltetuak. Azterketa perizialaren emaitzak jakiteko eta horren gainean eztabaidatzeko, abendua-ren erdialdera sasoi bateko kultur etxean batu ziren. Batzar horretarako, Berriz SUSAri be deitu eutsien –honen bitartez eroan eben aurrera egitasmoa–, hango zortzi etxebizitza eurenak direlako; SUSAko lehendakariordea joan zen batzarrera. Azterketaren ondorioak ezagutu ondoren, abokatua gaia sakonago aztertzekotan geratu zen. Okerrik ezean, laster jakinaraziko dau bere eritzia eta, ondoren, bloke bakotxeko bizilagunak batuko dira zer bide hartu erabakitzeko.

### Akatsak

Azterketa perizialak hainbat urritasun azaleratu ditu. Esaterako, itogin asko dago teilatuetan. Horrek umedade arazoak sortzen ditu. Irtenbiderik egokiena, azterketaren arabera, teilatua jaso eta behar den moduan iragazgaiztea litzateke.

Terrazak ez ei dagoz egoki errematatuta. Ondorioz, hormigoi zatiak plazara jausten dira. Plaza egoki iragazgaiztuta ez dagoenez, euria egiten dauenean ura garajeetera sartzen da, horrek eragiten dituen kalteekin. Bestalde, azterketak jasotzen dauenez, sare fekala txarto diseinatuta dago eta kolektoreak trabatu egiten dira sei hilabetero. Urritasunik grabeenekin amaitzeko, euri-urak batzeko sistema desegokien ondorioz, trastelekuetara ura sartzen da. ■ J.D.

**Esaterako, teilatuetako itoginengaitik ura barrura sartzen da umedadea sortuz**

Durangaldeko Behargintza

2008/2009 IKASTURTERAKO IKASTAROAK
DURANGALDEKO BEHARGINTZA

| | |
|---|---|
| ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA | 400 ordu (Praktikak 180 ordu) |
| ARRETA MERKATARITZA-GUNEETAN | 280 ordu (Praktikak 180 ordu) |
| INDUSTRI DISEINUA 2D ETA 3D | 114 ordu |
| NATURA-GUNEETAKO SOROSLEA | 186 ordu (Praktikak 102 ordu) |
| MENDEKO PERTSONEN ZAINTZARAKO LAGUNTZAILE ESPEZIALISTA | 58 ordu |

Informazio gehiago Durangaldeko Behargintzan

Proiektu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du.



Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
www.amankomunazgoa.com

## Miguel Angel Alberdiren omenezko agurrean berriztar ugari batu zen

Domeka eguerdian, Iremiñeko landetan, Miguel Angel Alberdi zenari agur esan eutsien. Alberdi Iremiñe dantza taldeko sortzaileetako bat izan zen, besteak beste. Berriztar asko hurreratu ziren ekimenera. Seme-alabek dantzak eskaini eutsiezen eta, ondoren, irudietan ikusten den legez, bere errautsak orduantxe landatutako haritz baten sustraietan zabaldu zitueen. Txalapartariek ekimena musikaz jantzi eben, eta Xabier Amurizak bertsoak kantatu zitueen Alberdi gogoratuz.



J. Fernandez

## Prezio justuko produktuen denda Caritasen

Gaurtik datorren barikura bitartean Caritasek Berrizen daukan egoitzan prezio justuaren merkatua zabalduko dabe. Badira zortzi bat urte merkatu hori antolatzen dabela, eta San Anton jaien babesera urtero izan ohi dauen harrera ona dela-eta aurten be zuzen-zuzenean eta bitartekaririk barik eskuratutako mundu zabaleko produktu anitzak erosteko aukera izango da. Egunero –asteburuetan be bai- 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Caritasek Arkaraz kalean daukan dendan.

Dendan gustu guztietako produktuak ipintzen ditue salgai. Hegoamerikekako, Asiako zein Afrikako produktuak aurkitu leitekez; esaterako, Brasildik eta Kolonbiatik ekarritako kafea. "Produktu guztiak kalitatekoak eta naturalak dira. Hori eskertu egiten dau erosleak", Ikerne Arzuaga Caritaseko kidearen arabera. Afrikatik heldutako bitxiak be badagoz. Asko saltzen den produktuetako bat infusinoak dira: "Badago urtero etortzen den jendea, mota askotakoak daukaguzelako".

# Sagardoa dastatu eta gero, barazkiak erosgai

‘Sagardo Ibiltaria’ arrakastatsua izan da; halakoa izaten da etziko azoka be



Txotx eta txotx, giro ederrra sortu eban herrian ‘Sagardo Ibiltariak’. Judit Fernandez

Joan zen asteburuko ‘Sagardo Ibiltariak’ jai-giro ederra sortu eban Berrizen. Olakueta plazan jarritako kupeletatik txotx egin eben hara hurreratu ziren herritarrek, eta instrumentuz jositako musikariak tabernaz taberna geratu barik ibili ziren alaitasuna txoko guztietara zabalduz.

Asteburu honetan emongo deutsee errematea San Anton jaiei. Domekan herrian tradizino diren azoka bi antolatuko ditue 11:00etatik aurrera. Batetik, XXVIII. Barazki eta Fruitu Azoka eta, bestetik, XIII. Artisautza Azoka. Era berean, 12:00etan, okelaren jaia izango da Urtiaga plazan.

**Barazki eta Fruitu Azoka eta Artisautza Azoka egingo ditue etzi; astelehenean, herri-kirol erakustaldiak be bai**

Astelehenean, 19:00etatik aurrera, herri kirolekin lotutako erakustaldi interesgarria dago euro bakar baten truke. Lehenengo, harri-jasotze lanetan Perurena aita-semeak eta Miren Urkiola ariko dira.

Ondoren, trontza saioa egingo dabe Arana anaiekin eta Naiara eta Nerea Etxebarria Bizkaiko txapeldunekin. Doazen guztientzat otartekoa eta edaria doakoa izango da. ■ J.D.

**ZALDIBAR**

## Tasatuen hiru laurden ez ditue hartu

Eskolen eremuan esleitu barik geratu diren sustapen pribatuko prezio tasatuko etxebizitzak saltzeko baimena emotea erabaki dauela azaldu barri dau Zaldibarko Udalak. Eraikitzen dabilzen prezio tasatuko eta sustapen pribatuko 48 etxebizitzen zozketan parte hartzeko eskaera egin eban herritarren gehiengoak atzera egin dau, eta ez dau etxebizitza erosiko. Ondorioz, Udalak azaldu dauenez, “SCEYC enpresari publizitatea egin eta erosleak bilatzeko baimena emotea” erabaki dabe.

### Prezio garestiegia

Orain hiru hilabete, azaroan egin eben Udaleko batzar aretoa bete eban 46 etxebizitza tasatuetariko 42 erosteko zerrendan izena emonda zeukienen etxebizitza zozketa.

Gogora ekarri behar da azaroko zozketa ekitaldian Udaleko batzar aretoan bildutako herritarrek euren kexak entzunarazo zitueela hasikerakoa baino prezio garestiagoak ezarri eutseezela salatzeko. Herritarren berbetan, hiru logelako etxebizitza bategaitik 230.000 euro ordaindu beharrari ezin eutsien aurre egin; jarrera haren berrestea da egokitutako etxebizitzari uko egite hau.

**Publizitatea egin eta etxebizitzen erosleak bilatzeko baimena emon deutso Udalak enpresari**

**Zozketan etxebizitzak egokitu jakezen herritar gehienek ez ditue hartu, gehiegizko prezioagaitik**

Asteon Udalak jakinarazo dauenez, 11 kontratu baino ez ditue sinatu eskatzaileek azkenean, eta beraz, hasikeran prezio tasatukoak ziren etxeok –promotoreak Udalagaz zehaztutako mugen barruko prezioa zeukienak– enpresak zuzenean salduko ditu. ■ I.E.

**DURANGO**

# Durangon Ludoteka zabalduko dabe lehenengoz, otsailean

Pablo Pedro Astarloan egongo da; hilaren 26tik 30era emon leiteke izena

Ludoteka jarriko dau martxan Udalak, otsailean, Pablo Pedro Astarloa 7an. Elkartzeko eta jolasteko gune didaktikoa izan gura dau, eta sormena garatzeko hainbat jarduera bideratuko ditue, adinaren araberako taldeetan antolatuta. “Gizarte-ohiturak landuko ditue, eta bakotxaren identitate pertsonala garatu”, sozialisten berbetan. Jeltzaleek somatutako premina nabarmendu dabe. Hilaren 26tik 30era emon leiteke izena (*ludoteka@durango-udala.net* / 94 466 91 54).

Ludotekak “funtzino pedagogiko eta soziala” bete gura dau. Holan, hirutik 14 urtera bitarteko ume eta gaztetxoen artean ingurumen heziketa, hezkuntza ez sexista, kulturarteko hartu-emona eta heziketa, eta, euskararen erabilera bultzatuko ditue. Astegunetan, 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik; txanda bi antolatuko dira. Zapatuetan, barriz, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara; sarrera librea izango da zapatuetan, eta gurasoen zaintzapean egon beharko dabe umetxoek. Domeketan itxi egingo da.

‘Ludotekari elkartua’ txartela erabiliko da; 10 euroren truke lau astean erabilgarria. Ahalik eta aukera gehien emon gura ei dabe,

**“Funtzino pedagogiko eta soziala” bete gura dau otsailean zabalduko daben Udal Ludotekak**

**‘Ludotekari elkartua’ deritzon txartela eskuratu beharko da 10 euroren truke**

txandak egingo dira-eta. Gehienez, 37 lagun izango dira hilean. Sozialista eta jeltzaleek “esperientzi pilotua” dela dinoe, “eskaera eta antolaketaz ikasiko dogu, eta kokapen barria beharko den ikusi”.

### Alokairua eztabaidagai

Udalak 105.000 euro erabili ditu abiatzeko. Orain, udal aurrekontuan diru-atala zehaztu beharko da, zerbitzu eta alokairuari aurre egiteko (hilean 2.200 euro). Prezio publikoa dela-eta, abstenitu egin da PP, jaistea proposatu ondoren. Aralarrek alde egin arren, “hausnarketa falta” gogoratu dau: “Udalak jasotako lagapenen erabilera agerian” geratu da. Talde Mistoak “benetako beharrak asetzeko kultur etxea” behar dela arrazoitu dau kontra egiteko, ludoteka eta helburuen definizinoa ondo ikusi arren. Lokal pribatu baten alokairua be ez dau begi onez ikusi.

PSE-EEk behin-behineko kokalekua dela nabarmendu dau, eta EAJk “proiektu pilotua den heinean, zerbitzu edo egitasmoaren egokiera” aztertuko dabela. Biek egin dabe alde, EB-Berdeek ez eze.

### Igerilekuak

Bestalde, urteroko etenaldi teknikoa dela-eta, Tabirako igerilekuak itxita dagoz. Astelehenean zabalduko ditue, Udaleko Kirol Erakundeak adierazo dauenez. ■ A.B.






**IURRETA**

# Hiru kooperazino egitasmo diruz lagunduko ditu Udalak

Peru, Chiapas eta Saharako lankidetza egitasmoak garatzera 19.860 euro bideratuko ditue

Garapenerako lankidetza egitasmoetara 19.860 euro bideratuko ditu Iurretak, aho batez onartu dabenez. Adeco elkarteak aurkeztutako *Lan-munduratze eta osasun onerako tailerrak: okintza produkzinoa eta erizaintza, gazteekin eta minusbaliotasunak jotako pertsonekin San Martin eskualdean (Peru)*, egitasmoa garatzeko 12.148 euro bideratuko ditue; Reciclanet elkarteak aurkeztutako kooperazino eta garapen egitasmoari laguntzeko 1.210 euro, eta, 2006ko otsailean izandako uholdeen eraginez Saharako La Güera dairan kaltetutako familia-etxebizitzak zaharberritzeko 6.500 euro.

Adecok Perun bultzatutako egitasmoan, gutxietsitako hainbat kolektibo gaitu gura ditue gehien lanbiderik demandatuenak ondo bete daiezen, eta gazteek be ikusi dagien lana baliabide eraginkorra dela sozialki integratzeko.

Reciclanet elkarteak, bestalde, *Chiapas eskualdean (Mexico) formazino informatikoan eta osasunaren komunikazioan laguntza teknikoa* egitasmoa landu dau. Chiapasen, Caracoles-eko osasun zentroetarako (tokiko zentro administratiboak) software libreko hezkuntza baliabideak eta material informatikoa bideratzeko erabiliko dabe dirua. Chiapaseko komunitate indigenetan osasun laguntza hobetzea da helburua.

Azken laguntza Saharako La Güera dairara doa. 2002an anaitze akordioa onartu eban Udalak La Güera dairagaz, "askatasun, parte-hartze eta elkartasun giroa" lortu asmoz. ■ A.B / J.D.

**Chiapasi jagokon egitasmoan hango komunitate indigenen osasun laguntza hobetzea dabe helburu nagusi**

## Asto-probak eta Luhartz taldearen erromeria, Bakixan, jaiak agurtzeko



J.Fernandez

Sebastian Deuna atxaki ,jai giroan murgilduta dagoz Iurretako Bakixa auzoan. Asteburuan agurtuko ditue jaiak. Aurretik, asto-probak eta Luhartz plaza taldeagaz erromeria izango ditue, zapatuan. Domekan, barriz, Mikel Deuna Dantza taldekoek eta Eneko Abasolo "Abarkas", Miren Amuriza eta Igor Elortza bertsolariek eskainiko dabe saioa, meza amaitu ondoren.

Joan zen asteburuan antolatu zitueen ekitaldien artean, Maiztegi eskolako dantzariek eskainitako saioak be hainbat lagun batu zituen.

**MALLABIA**

# Frontoiak kiroldegi funtzinoa beteko dau otsailetik aurrera

Frontoiaz gainera, muskulazino-gela eta ikastaroak be eskainiko ditue

Kiroldegiak otsailean, frontoiaz gainera, giharrak lantzeko gela, spinning-gela eta soinketa ikastaroak be martxan ipiniko ditu. Muskulazino-gela atontzeko prozesuak proiektua zabaltzeko eguna hilabetez atzeratu dau.

Mallabiko Kiroldegia "hutsetik" hasiko bada be, lau ikastaro eskainiko ditu: spinninga (dagoeneko talde bi osatu dira), pilatesa, mantenu soinketa eta 3. adinekoentzako soinketa. Aldi berean, frontoia eta muskulazino-gela erabili ahal izango dira.

Kiroldegia 16:00etatik 22:00etara zabalduko dabe. Erabiltzaileek goizez be zabaltzea gura balebe, Udalean instantzia bateratua aurkeztu beharko leukie, horren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko.

Izena emoteko argazki bat, NANaren fotokopia eta kontu korrontearen zenbakia aurkeztu behar dira Kiroldegiko sarreran. Urteko bazkidetza 30 eurokoa da (langabetu eta pentsinodunek 15 ) eta hileko kuota, gainera, sei eurokoa.■ Maria González

**Mallabitarrentzako urteko bazkidetza 30 eurokoa da eta hileko kuota sei eurokoa**

**DURANGALDEA**

## JAEDeko autoaren irabazleak eskuetan daukaz giltzak



Jordi Alemany

JAEDek urtero banatzen dauen saririk baliotsuena autoa izan ohi da. Aurten be halan izan da, eta atzo eguerdian Citroenek Iurretan daukan kontsezionarioan sari preziatua emon eutsien irabazleari: Elsa Maria Bardeci Ortiz durangarrak jaso zituen kotxe barri dotoreko giltzak.

JAEDen zozketak 50. aldia izan dau aurtengoa. 60.000 txartel saltzea zen euren helburua eta ia-ia heldu dira kopuru horretara; 58.300 saldu ditue. Beraz, krisiak ez dau txartelen salmentan eragin eta JAEDeko ordezkariak gustura agertu dira jenteak emondako erantzunagaz.

## Antsietatea kontrolatzeko ikastaroa eta Guraso Eskola

Otsailean hasiko dira, beste urte batez, Durangoko Mankomunitateko Drogomenpekotasunen Prebentzinorako Sailak bideratzen dituen ikastaroak. Azken urteetan lez, gurasoek euren seme-alabekiko hartu-emonean baliagarri izan leikiezen gaiak landuko ditue Guraso Eskoletan. Drogen, sexuaren eta autoestimuaren inguruan jardungo dabe zortzi saioko ikastaroan. Bestetik, igaz lehenengoz egin eben emakumeari zuzenduriko 'Antsietatea kontrolatzen ikasten' izeneko ikastaroa be eskainiko dabe. Izena emoteko telefonoa: 94-6200520.

## Ikastaroak mendekotasunean bizi direnen zaintzaileentzat

Durangoko Udaleko eta Mankomunitateko Adinekon Sailak mendekotasunean bzi diren nagusien zaintzaileei laguntza emotea helburu dauen ikastaroa jarriko dabe martxan. Zaindu pogramaren barruan, senitartekoei prestakuntza eta informazinoa emon gura deutsee euren zeregina betetzeko baliabideak izan daiezen (dementzia eta mendekotasuna, elikadura, mobilitatea, gizarte baliabideak, etab.). Ikastaroak urtarrilaren 26an hasiko dira eta gaur da izena emoteko azken eguna (94 6200546).

**BERRIZ**

## Martxoaren 8rako irudia hautatzeko kartel lehiaketa

Emakumeen Nazinoarteko Eguna, martxoaren 8a, iragarriko dauen kartela hautatzeko kartel lehiaketa ipini dau Berrizko Udalak martxan. Baldintza nagusia aurkeztutako kartelak Emakumearen Nazinoarteko Egunari eta Berrizi erreferentzia egitea izango da, eta banaka zein taldeka, edonork bidali leike bere diseinua lehiaketara. Adinez nagusi diren parte-hartzaileen artean epaimahaiak irabazle hautatutako kartelaren egileak 300 euro jasoko ditu, eta argazki kamera bat izango dabe gazteenek sari. Lanak aurkezteko epea otsailaren 16a bitartekoa izango da, eta otsailaren 17an jakinarazoko dabe lehiaketaren epaia.

HERRIRIK HERRI ATALAREN BABESLE
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia

BERBAZ

# "Inork ez deusku bakea etxera ekarriko; gatazka gainditzeko lan egin behar dogu"

Ekimen xumeen bitartez Durangaldean elkarrizketaren aldeko uholdea sortzea da Ahotsaken helburua.



Iban Gorriti

Amparo Ereñaga, Celia Munitxa, Mª Antonia Talavera, Uri Salazar, Karmele Arruti, Mila Barrueta, Begoñe Markina eta Maite Barreña

**Ahotsak plataformaren sorrerako testuinguru politikoa nabarmen aldatu da. Halan be, talde horretako kideek, oztopoei aurre eginez, elkarrizketa dela bidea aldarrikatzen jarraitzeko asmoa agertu dabe. Joan zen eguenean Durangaldeko Ahotsakek Plateruenean antolatutako berbaldian azaldu ebenez, Euskal Herrian bizi dogun gatazka konpondu daiten elkarrizketaren aldeko "obsesinoa" daukie.**

***Hain eritzi ezbardinetako emakumeok zelan lortu dozue oinarrizko ideia batzuetan ados jartzea?***
Durangaldeko taldea sortu genduenean, Ahotsak nazionaleko erizpideekin abiatzea erabaki genduen. Durangaldeko taldea martxan jarri aurretik,beraz, oinarri batzuk landuta zegozen jadanik. Eskualdera ekarri eta hilabeteetako hausnarketa sakona egin ondoren, guztion artean ados jartzea lortu genduen. Ordutik aurrera geure dinamika propioagaz jarraitu dogu.

***Zer oinarri daukaz Ahotsakek?***
Ideia inportanteena gatazka konpontzeko elkarrizketa ezinbestekoa dela da. Gatazka egoera batean bizi garela onartzen dogu. Alde bateko zein besteko biolentziagaz amaitzeko bide bakarra elkarrizketaren bidea eta adosasunetara heltzeko konpromisoa delakoan gagoz.

"Beste herri batzuetako taldeekin be hartu-emona daukagu"

***Zer lan dinamika daukazue?***
Hamar-hamabost emakume biltzen gara. Ideologia ezbardinetako emakumeak gara, batzuk militanteak, beste batzuk sindikatuetakoak eta beste afiliazino zehatzik bako emakumeak be bai; ez dabe alderdi politiko jakin bategaz bat egiten. Konturatzen gara politika herrian konponbiderako tresna bat dela, eta politika egin behar dela gatazkari aurre egiteko.

***Egiten dozuezen batzarretan zer eztabaida sortzen dira ?***
Guk konpromiso bat daukagu: gure batzarretan esandakoak gure artean gelditzen direla, eta hortik ez direla irtengo. Dinamika horregaz konfidantza giroa sortzen da. Eztabaida asko gogorrak izaten dira. Besteen ikuspuntuak entzutea, batzuetan, gogorra izaten da. Parez pare daukazun horren sufrimendua onartzea sarritan ez da erraza izaten. Gai batzuen inguruan berba egitea be latza izaten da. Denbora honetan heriotzak, torturak, ilegalizazinoak, irainak eta mehatxuak bizi izan doguz. Momentu batzuetan oso gogorra izan da elkartzea bestearen sentipenak aintzat hartuz.

***Bake prozesuaren amaiera zelan bizi izan zenduen?***
Frustazino eta bakardade ikaragarria sortu zen herritarron artean, eta baita geure artean be. Bakea lortzea posible izango zela sinestu genduen. Guk horretaz sarri berba egin dogu, eta argi daukagu bakea inork ez deuskula etxera ekarriko. Euskal Herriko gatazka konpontzea geuk lortu behar dogu.

Klase politikoa bera bakarrik arazoa konpontzeko gai ez dela ebidentea da. Guk elkarrizketaren eta konponbidearen aldeko akuilu lana egin behar dogu; atzeraezinezko bidea sortu behar dogu. Ezin dogu zain gelditu.

"Batzarretan esandakoa gure artean gelditzeko konpromisoa daukagu"

***Beste eremu batzuetan ez bezala, emakumeok adostasunetara heldu izana zelan baloratzen dozue?***
Emakumeok be gatazkaren konponbidean protagonista izan behar dogulakoan gagoz. Beharrezkoa da gu hor egotea, gauzak egiteko beste era bat daukagulako. Ez dot uste kasualitatea denik Ahotsak emakumez osatua egotea. Emakumeok bestelako erregistro batzuk daukaguz, eta gaitasun handia dogu arazoei aurre egiteko.

## Maite Barreña •

**Durangoko Ahotsakeko kidea**

- Berdintasun teknikaria.
- Zientzia politikoetan lizentziatua.

***Sarritan politikagintzan emakumeen interesak ez dira aintzat hartzen.***
Emakumeen lobbyak sortzea beharrezkoa dela deritzogu. Gure interesak alderdi politikoetatik kanpo dagoz. Alde horretatik asko daukagu ikasteko eta irabazteko; guk eta jendarte osoak be bai.

***Joan zen asteko hitzalditik zer ondorio atera dozue?***
Desiatzen gagozela itxaropentsuak izan leitekezen urratsak emoteko; beti be, zailtasunak ezagutuz. Ahotsakegazko dagoen jarrera ona sumatu genduen, eta herri honetako biztanleok konponbidea gura dogula be bai.

***Taldean parte hartzeko aukerarik badago?***
Emakume guztiendako dagoz zabalik ateak. Gutakoren bategaz hartu-emonetan jarri eta edonork parte hartu leike taldean.

▪ Jone Guenetxea

"Emakumeok be euskal gatazkaren konponbidean protagonista izan behar dogu"

# EKONOMIA

>ZORNOTZA

## Geodisen auzian ez deutsiela parte hartzen itzi salatu dau LABek

Geodis Iberiak bere bezero-poltsa saldu deutso Azkar enpresari. Erabaki horrek, Estatu espainiar osoan ia 500 behargini eragingo deutseela salatu dau LAB sindikatuak. Zifra horren barruan, Zornotzako Geodisen dihardueen 78 langile dagoz.

LAB sindikatukoek jakitera emondakoaren arabera, Azkarrek Geodiseko bezeroekin lan egiteari otsailean ekin gura deutso. "Horregaitik, ordurako gai hori lotuta itzi gura dabe".

> Geodis Iberian dihardueen 483 langile kaleratuko ditue; tartean, Zornotzako enpresako 78 behargin

Geodisek Madrildik zuzendu dituen negoziazinoetan CC.OO. eta UGT sindikatuekin bakarrik batzartu izana gogor kritikatu dau LABek. "Zornotzan ordezkaritza daukagun ELA eta LAB alde batera itzi gaitue". Informazinoa gorde izana be salatu dabe sindikatutik. ■ J.G.

>DURANGALDEA

## Prezioen Behatokiaren sorrera eskatu dau ENHEk

EHNE sindikatuak hainbat produktu saltzeko orduan erabilitako estrategia komertziala salatu dau. Sindikatukoek azaldu dabenez, hainbat eragile komertzialek –tartean Gurokelak– labeldun arkumeak artzainei ordaintzen jakena baino prezio merkeagoan saltzen dihardu. Jakitera emon dabenez, Erralde Hiltegiak artzainei Bizkaiko Bildotsagaitik kiloko 6,46 euro ordaintzen deutsez. Gurokela labeldun arkumeak euro bat merkeago saltzen dabilela gogor kritikatu dau ENHE sindikatuak.

Bildotsaren jatorrizko prezioa jaitsi eta baserritarren errentagarritasuna murrizten daben jokabide komertzialen aurka egiteko Prezioen Behatoki baten sorrera eskatu dabe EHNEkoek. ■ J.G.

> Hainbat produktu saltzeko erabilitako estrategiak salatu ditu EHNEk

>ELORRIO

# Eroski munduko kooperatiba handiena izateko bidean da

### Joan zen astean Elorrion bildutako 500 ordezkariek egindako batzarrean berretsi egin eben zuzendaritza taldeak aurkeztutako proposamena

Eroskiren etorkizunean erabakigarria izan leitekeen EMES proiektuak aurrerapausoak emoten dihardu. Ekimen horren bitartez, enpresako 52.000 langileek kooperatibista izateko aukera izango leukie. Helburu hori betez gero, Eroski munduko kooperatiba handiena bihurtuko litzateke.

Joan zen astean Elorrion bildutako 500 ordezkariek zuzendaritzaren proposamena berretsi eben. Argitu dabenez, batzar nagusiak oneritzia agertzea proiektuaren abiapuntua baino ez da. Hurrengo bi urteotan hurrengo urratsak emoteko egutegia zehaztuko dabe.

> EMES proiektuagaz taldeko sozietate anonimoak kooperatiba bihurtuko dira

Ezarritako helburuak lortzeko, baina, aldaketa ugari egin beharko ditue. Lehenengo eta behin taldea osatzen daben sozietate anonimoak sozietate kooperatibo bihurtu beharko ditue. Aldaketa horrekin, besteren kontura lan egiten daben behargineí "kooperatibista jabeen estatusa" izateko aukera emon gura deutsiela azaldu dabe.

Zuzendaritzak ziurtatu dauenez, "Eroskik Mondragon Korporazinoagaz eta Euskal herriagaz duen konpromisoa berretsi dau".

Eroskiko kide batzuk enpresaren egitura aldaketagaz kezkatuta dagoz. Eroskik ziurtatu dau bere egoitza Elorrion izaten jarraituko dauela. ■ J.G.

> Martxan jarritako egitura aldaketa osatzeko urte batzuk pasatu beharko direla argitu dabe


Ardatza

## Zuri behiak Euskal Herriko errekorra hautsi dau

Mungiako Iñaki Lopategiren Zuri behiak marka barria ezarri dau Erralde hiltegian. Lau urte eta erdiko abereak 871,4 kilo pisatu ditu hil ondoren. Bizirik zegoela, 1.300 kilo zituenez, errekor barriak ikusmin handia sortu eban. Behi horren okela Erandioko Ion Aiarzaguenaren harategian salduko dabe. Prestatu eta dastatzeko aukera izango da Erandioko La Estrella jatetxean eta Mungiako Zabalondo auzoko Mendibe jatetxean.

>DURANGO

# Esperientzia Institutua otsailean martxan

### Antolatutako ikastaroen bitartez gizartean parte hartzera bultzatu gura ditue 55 urtetik gorakoak

Durangaldeko Esperientzia Institutua (DEI) otsailaren 3an jarriko dabe martxan. Mankomunitateak, Durangoko Udalak eta Behargintzak bultzatutako ekimenaren bitartez, 55 urtetik gorako pertsonentzako topagunea sortu gura dabe.

Zerbitzu horren arduradunek jakitera emon dabenez, "pertsona horreek formatzeaz gainera, euren esperientzia aprobetxatu gura dogu, eta gizartean parte hartzera bultzatu".

DEIk eskainiko dauen lehenengo zerbitzua hiru modulutan banatutako ikastaroa izango da.

> Adin tarte horretakoek ikasteko eta gizartean aktiboki parte hartzeko sortutako ekimena da.

> Aurre-jubilatu eta nagusiak gizarteko aldaketak ulertzeko prestatu gura ditue.

*Zahartzaro arrakastatsu eta onuragarria, XXI. mendean nagusia izan* eta *Esperientzia eta gizartean parte hartzea* dira otsailetik ekainera landuko ditueen gaiak.

55 urtetik gorakoei zuzendutako institutua esperientzia pilotua da, bai antolatzaileendako baita parte-hartzaileendako. Mankomunitateko arduradunen esanetan, "aurreko urteetan Deustuko Unibertsitateagaz batera emondako fomazinorako ikastaroek arrakasta handia izan dabe". Jakin eragin dabenez, "jentea informazinoa jasotzeko prest dagoela konturatu gara, eta guk baliabideak jarri deutseguz".

Durangaldeko Behargintzan martitzen, eguazten eta barikuetan 09:30etik 12:30era emongo ditueen eskoletan jardungo daben irakasleak arlo bakotxeko profesionalak izango dira. Izena emoteko epea gaur hasi eta urtarrilaren 30a artekoa izango da. ■ J.Guenetxea

■kolaborazinoa



Ainhoa Iturbe
ENHE sindikatua

## We can change

Hala zioen duela gutxi kargua hartu duen Barack Husein Obamaren hauteskunde kanpainako lema nagusiak. Eta zerbait aldatu du. Duela hogeita hamar urte bueltan, Vietnameko gerraren garaian, hara bidaliak ziren gehienak beltzak ziren; espetxeetan zeuden gehienak, eta gaur egun daudenak ere, beltzak ziren; eta Ameriketako Estatu Batuetako txiroen gehiengoa beltzak ziren eta dira. Eta orain, orain Barack Husein Obama lehendakari dute.

Vietnameko sasoiak ditut buruan, Kaliforniako Berkeleyko unibertsitatean egindako protestaldiak Lyndon B. Johnsonen presidentetzaren garaian. Protestaldi baketsuak ziren; funtsean, lurrean eserita era baketsuan protestatzea. Baina erantzuna ez zen lurretik heltzen, Guardia Nazionalaren helikopteroetatik jaurtitzen zizkieten gas-poteetatik baizik.

> **"Vietnameko sasoiak ditut gogoan, Berkeley unibertsitateko protesta baketsuak"**

Pasa den zapatuan ere, Berkeleyko campusean ez, Urbinako landatan izan zen: milaka pertson eserialdi bat egiteko asmotan bildu ziren protestan. Erantzuna lurretik eta helikoptero gorri eta txurietatik jaurtitzen zituzten gomazko pelotetatik heldu zen, helipoktero berdeak inguruetan jira-bueltaka zebiltzala.

"Elkarrizketa, elkarrizketa,elkarrizketa" aldarrikatzen duen gure George W. Bushek ertzainak,ertzainak eta ertzainak bidaltzen dizkigu, benetako agintearen aurrean burumakur gelditzen den artean.

We can also change; inguruetako politiko guztiak hasi dira hau erabiltzen, baina benetan, egunen batean, we can change gure herria.

> **"Joan zen zapatuan Berkeleyn beharrean Urbinan izan zen protesta eserialdia "**

# KULTURA>


Judit Fernandez

**MUSIKA ETA POESIA>**

# *Internet Kafe*, Berrizko jaietako domekan

Kirmen Uribe idazle ondarrutarraren eta Mikel Urdangarin musikari zornotzarraren azken proiektua euren harremanean eta bietako bakoitzaren lanean oinarritutako egitasmoa da: musika eta berbak, entonazio eta erritmoak, batzen dituena.

Berrizko Kultur Etxeko eserleku gehienak betetzen zituzten entzuleen aurrean izan ziren poeta bat eta musikari bi: Mikel Urdangarin gitarrarekin eta, azaldu zuenez, Eskozian ezagutu duen biolin-jotzaile georgiarra alboan. Hain justu, zornotzarrak Eskozian egin berri duen denboraldian sortutako proiektua da domekan Berrizen izan zen *Internet Kafe*.

Ikuskizunaren oinarria poetak eta musikariak elkarri idatzitako mezu elektronikoak dira: Urdangarinek Uriberen berbei Eskozian musika ipini eta mezu elektronikoari atxikita bidalitako audioak… bere bizitzako une bat Eskoziaraino helarazteko Uribek bidalitako irudi artxiboa…

Baina, batez ere, berbak dira *Internet Kafe*ren osagai funtsezkoak: kanta bilakatzerainoko erritmo eta entonazioa dutenak zein errezitatuz esandakoak. Sareko hartu-emanetan kanta bihurtutako olerkiak, eta olerki diren abestiak. Leun-leun eta apenas ohargarri, berben gainetik beste batzuetan, gitarraren eta biolinaren soken soinua da osagarri. ■ I.E.

12 > Dantza ikastaroa: AIKO
Zuzeneko musikak lagunduta, dantzaren oinarrizko ezagutza eskaintzen dute Plateruenean, AIKO dantza ikastaroetan.



13 > Etxano ezagutzera emanez
Mikel Polo kazetariak idatzi du *Amore bi eta Etxano* deitu duen liburua; astearte honetan aurkeztu du Amorebieta-Etxanon.

DANTZA>IKASTAROA

# Dantzak berezko duen alde ludikoa Platerueneko plazan

AIKO izeneko ekimena da martitzenero Durangoko antzokian izango dena

Martitzen honetan izan da AIKO izeneko dantza saioetako lehenengoa Durangoko Plateruenean. Dantza eta musika irakasleek osatzen dute dantza tailerra ematera martitzenetan Durangora etorriko den taldea; Durangoko kafe antzokian dantza tailerra eskaintzera etorriko dena.

Urtarrilaren 27rako, martxoaren 1erako eta apirilaren 18rako zehaztuak dituzte jadanik Durangoko Plateruena kafe antzokian dantza ikastaroko hurrengo hitzorduak. Edozein izan daitekeela gai plazara dantza egitera ateratzeko erakusteko sortutako ekimena da.

Gorputza, musikaren erritmoan askatasunez eta gorputzak eskatzen duen modu naturalean mugitzera gonbidatzea da musikari eta dantzariek sortutako ekimen honen abiapuntua, dantzara, plazara ateratzekoa. Tailerrean ikasitakoa gero herrietako jaietako plazetan praktikan ipiniko duen jendeari irakatsi nahi diote.

> Herrietako plazetako dantza giroa berreskuratzeko

Helduei zuzenduriko tailerra da martitzenean abiatu dutena; izan ere, azken aldian, antolatzaileek nabarmentzen dutenez, dantza taldeetan parte hartzen dutenen gaztetasuna kontuan hartuta, badirudi dantza ume eta gazteen kontua dela bakarrik.

Dantzaren espazio naturala, plaza, herritar guztiena den espazioa berreskuratu gura dute, kasu honetan Plateruena bilakatuz plaza. Profesionalek oholtzan egiten dutenaz gainera, dantza beste zerbait ere badela uste dutelako. Dantzaren helburua, jendearen arteko harremanak bideratzea izan zen urte askoan, eta horretara bueltatzea da proposamena.

“Era tradizionalean dantzatzea den esperientzia berria bizitzeko aukera eskaintzea” dutela helburu diote antolatzaileek. Dantzatzeko bereziki eginiko zuzeneko musika joko dute, horrela, dantzarekin gozatzeko. Parte-hartzaileek dantza, barnetik ezagututa, beste era batera ulertzeko ematen dituzte irakasleek azalpenak.

> Helduei zuzenduriko dantza ikastaroa da eskaintzen dutena

Soka-dantza, jota, porrua, baltsa, mazurka, txotisa, pasodoblea, polka, kontradantza eta kontrapasa lako dantzak ikasteko aukera da Platerueneko martitzenetakoa.

Bizkaiko hainbat herritako tailerretan aritu izan diren guztiak gonbidatu dituzte martitzen honetan eta datozen hitzorduetan parte hartzera; orain urte batzuk arte dantzak berarekin izan duen alde ludikoarekin gozatu eta ordu gozagarri bi igarotzera. ∎ I.E.

> Jendearen arteko harremanak bideratu izan ditu beti dantzak



Dantzan eman zuten martitzen iluntzea. Kepa Aginako

GEURE DURANGALDEA

## Iurreta dut izena...



Jon Irazabal
**Gerediagako kidea**

Iurreta izenarekin ezagutzen dugu gure herria, baina... zer dela eta? Zer esan nahi du?

Ez da erraza erantzuna ematea. Lehen aipamena 1072. urtekoa dugu; Donemiliaga Kukulako monasterioari Iurreta San Martin monasterioa oparitzen dionean Nafarroako Erregeak. Dokumentu hartan “Ihurrueta” idatzita agertzen da. 1075. urteko beste dokumentu batean “Hurrieta” gisa.

Gurea ez da Iurreta bakarra. Adibidez 1500.ean aipatzen da izen bereko mendi bat Donostiako Urgobia bailaran. Egia da: Iurre eta Iurreta ia gauza bera da. Gure izenean amaieran “eta” atzizkia du, eta honek adierazten du ugaritasuna. Iurre izeneko tokiak ugariagoak dira Tolosan, Arratian, Gasteizen, Idiazabalen, Lizarran, Igorren...

Eta zer ezan nahi du Iurreta izenak?

Iturriza, Berrizko historiagileak dio “Iru erreka” adierazten duela izenak, bere inguruan bat egiten dutelako Saldaiko errekak, Mañarikoak eta Ibaizabalek. Eta horrela idatzi dute mendetan zehar; oraintsu Iurretako Udalak kaleratutako CD batean ere bai.

Orain pare bat urte filologo batek idatzi zuen “hiru errota” esan nahi duela Iurretak, Montoiko zubiaren inguruan antzina hiru errota egon zirelako.

Baliteke baina... 1072. urtean? Gaitz.

Ikerlariek gaur egun diote Iurretak esan nahi duela iurre ugari dagoen tokia. Eta zer da Iurre? Belar bat, latinez “sambucus ebulkus” eta gaztelaniaz “yezgo” izenarekin ezagutzen dena; lore zuri eta gorrikoa da eta fruitu beltz oso pozoitsua du. Sendagarri ona da izerdiarentzat, eta baita diuretiko eta libragarri ona ere, baina oso arriskutsua da erabiltzerakoan, eta, horregatik, medikuaren gidaritzapean erabili behar da. Erreka ondoan eta Iurretako hainbat tokitan benetan ugaria izan den landarua dugu iurre hau

Iurre eta Iurreta izen bera da: bata landarearen izena eta bigarrena landare hori ugari dagoen tokiaren izena.

LITERATURA>LEHIAKETA

# Iurretako Ipuin eta Bertso paper Lehiaketa hasi da

Urtarrilaren 29an –eguerdiko hamabiak arte– izango dute parte hartu gura dutenek lanak lehiaketara bidaltzeko azkeneko eguna. Ohiko denez, seigarren edizio honetan ere Iurretan ikasten duten ume eta gazteek dute lanak bidali eta parte hartzeko aukera. Ume eta gaztetxoek euskaraz idatzitako testuak igorri ahalko dituzte lehiaketara, eta gaia librea izango dute. 18 urtetik gorakoek, bestalde, gaia zein baliatutako hizkuntza ere libre izango dute; gazteleraz zein euskaraz idatzitako testuak aurkeztu ahalko dituzte Iurretako Bibliotekan.

Ume eta gazteen zein helduen kategorietan, sail bi izango dira: ipuinak eta bertso paperak. Sari banaketa, berriz, maiatzaren 8an egingo dute. ∎ I.E.







**LITERATURA>**ELKARRIZKETA

# Mikel Polo: "Etxano izan zena eta dena modu irakurterrazean kontatzea izan da nire helburua"

Azken hilabeteak *Amore bi eta Etxano* izenburuagaz idatzitako 500 orrialdeak laburtzen jardun dau Mikel Polo kazetari gazteak, eta erdian itzi dau azkenean. Martitzenean egin dau 250 orrialdeko Etxanori buruzko liburuaren aurkezpena.



Iban Gorriti

***Zelan sortutako proiektua da liburua? Enkargua da?***
Bai. Etxanoko Andra Mari Berri auzo elkarteak orain dela hiru urte ekin eutsan liburua ateratzeko asmoari. Auzoaren historia jasoko eban liburua gura eben. Etxano gaur zer den jenteak daukan ideia eta lehen zer zen oso gauza diferenteak dira: orain eliza ingurua da jentearendako Etxano, baina lehen oso hedatua zegoen auzoa.

***Auzo elkartearen helburuetako bat auzoaren historia hori gordetzea da, beraz.***
Printzipioz, lehentasun biri erantzuteko sortu eben Etxanoko auzo elkartea: auzoaren premina nagusiei erantzuna emotea –Etxanoko auzo batzuek ez daukie-eta ez sameamendu ez urik–, eta, auzoaren identitatea berreskuratzea bestetik.

***Etxanokoa zara zeu be?***
Ez, ni amorebietarra naz. Auzoko "seme kuttuntzat" naukiela esaten dabe auzotarrek...

"Auzoko 'seme kuttun' izendatu behar nabela esaten deuste etxanotarrek"

"Liburua nobela bat izango balitz moduan idazten saiatu naz"

***Eta liburua egin aurretik ezagutzen zenduen Etxano?***
Ez, eta niretzako oso aberasgarria izan da lan hau: Etxano iraganean herria izan zela banekien, eta uste neban eliza inguruko etxeek eta auzoek osatzen ebela. Gero konturatu naz Amorebietako parte asko Etxano zirela. Etxano lehen zer zen geografikoki kokatzea bera bakarrik, oso aberasgarria izan da.

"Ordenagailuaren parean jesarri eta idazteari ekitean gozatu dot gehien"

***Eta liburuan zer aurkituko dau irakurleak?***
Helburua, etxanotarrek gustura irakurriko daben liburua idaztea zen, eta kazetari nazen aldetik nik idatzi izanak –ez historialari batek– daukan onena irakurterraza izan daiten idaztea izan da; ez hainbeste datu kronologikoen bilduma egitea. Nobela bat balitz moduan idazten saiatu naz. Geografikoki eta demografikoki Etxano zer izan zen erakusten saiatu naz, eta auzotarren bizimodua transmititzen be bai.

***Amorebieta-Etxano izatera pasatu zenekoa be jaso dozu...***
Jenteak Etxano Amorebietako auzoa dela uste izaten dau, baina, berez, Amorebieta-Etxano izenak bi herriri emoten deutse gaur egun identitatea. Jente askok dino tematuta dagozela herri bat direla esaten, eta ez da horrela: Amorebieta-Etxano da izena, bi herrien identitatea gordetzeko. Jentearen %95ek okerreko kontzeptua dauka.

"1951ko anexinoa azaltzen daben dokumentuak bildu doguz liburuan"

***Amorebietarrendako be ipiniko dozue salgai, beraz.***
Ideia aterako diren aleak etxanotarren artean banatzea da. Egia esan, jenteak esan deust ia zergaitik ez dogun aprobetxatzen Amorebietan be liburua banatzeko. Aurreragorako pentsatuta daukagu beste liburu bat egitea: argazki bilduma bat. Asmoa dago bilduma horren ale gehiago ateratzekoa.

***Liburua egiteko prozesua luze eta nekagarria izan da?***
Lehenengo gerturatzerako asko lagundu deust auzo elkarteak. Ez da eurek bultzatutako proiektua bakarrik, datu asko emon deuste, elkarrizketak egiteko be orientazinoa eskaini... Eurak izan dira lehenik eta behin, Etxano zer zen, geografikoki zer lurralde zen ezagutzen... lagundu deustenak; historia horren barruan sartu nabenak.

***Amorebietagazko anexinoari buruzkoak be jasotzen dozuz liburuaren atal batean...***
Etxanok zer lurralde hartzen dauen jakin barik anexinoa ulertzea gatxa da: Etxano hain aberatsa izanda, interes handia zeukien amorebietarrek Amorebieta eta Etxano batzeko. Zelako lur piloa eta zer ekonomia mota zeukien ikusten dozunean ohartzen zara gauzetaz. Auzotarrek nabarmentzen dabe, anexinoa frankismo garaian egin izanak estali egin ebala prozesu guztia. Madrilen hartutako erabakia edo jauntxo batzuena izan zela esaten dabe gehienek. 1951ko anexinoari buruz, dokumentuetan jaso dogu jentearen berbatik baino gehiago.

***Eta anexinoaz zer dinoe dokumentu horreek?***
XX. mendean zehar hainbat aldiz eskaini eutsan Amorebietak bat egitea Etxanori. Ekonomikoki interes handiak zegoen. Dokumetuetan ikusten da eskaintzari ezetz erantzuten eutsela etxanotarrek. Momentu haretan anexinoari garrantzi handirik ez eutsiela emon dinoe auzotarrek, eta hurrengo hamarkadetan be etxanotar sentitzen zirela. Orain, 50 urte pasatu ondoren, konturatu ei dira zer suposatu dauen harek: belaunaldi barrietan galtzear ei dago etxanotar identitatea.

***Elkarrizketak be egin dozuz...***
Hainbategaz egon naz, baina liburuan jasotakoak 10-12 pertsonagaz izandako berbaldiak dira. Euren bizimodua kontatzen dabe, irakurleak lehenengo pertsonan ikusi daian auzoa zer zen. Azkeneko atalean jaso ditut elkarrizketak, eta zelanbait liburuan zehar dokumentu eta datuen bitartez emoten denaren testigantza dira.

***Bereziki nabarmenduko zeunke kontakizunen bat?***
Anekdota asko dagoz, eta gerra zibilaren inguruko detaile asko dagoz oso inpaktanteak. Bat aipatzekotan, gerra ostean zelan gaiztotu zen giroa islatzen dauena aitatuko dot: lehenago elkarri laguntzeko prest zegozen auzotarrak zelan etsaitu ziren. Amurizatarrek kontatu da, adibidez, etxera bueltan etxea hutsik topatu ebela eta amaren ezkontzako oheko izara alboko baserrian eskegita topatu ebela. Auzoan, elkarren lagun izatetik elkarri berbarik ez egitera igaro ziren asko.

"Interes ekonomiko handiak zegozen tartean Etxanoren anexinoa lortzeko"

***Eta dokumentu argigarriena?***
Anexinoa inposatutakoa izan zela erakusten daben dokumentu bi izan dira bereziki argigarriak: hilabeteetan ura ordaindu barik zegozelako ura moztu eutsan Etxanok Larreako komentuari. Dokumentu batean, komentua Amorebietako herriaren barruan sartuz gero, ura betirako doan izango ebela esaten deutse hareei Amorebietako Udalak. Anexinoa nondik datorren azaltzen dauen proba oso objektiboa da.

***Zegaz gozatu dozu gehien?***
Ordenagailuaren parean jesarri eta idazteari ekin deutsadanean gozatu dot gehien. Etxanotar sentitu eta historia guztia ulertzen hasi nazen unean. ▪ I.E.

MUSIKA> KONTZERTUAK

# Malo eta Mongoren disko aurkezpenak

## Gaur aurkeztuko du Mongok disko berria



Iban Gorriti

Malo izen bereko diskoko kantak aurkezten izan zen iragan asteburuan Berrizko jaietarako Hiltegixe gaztetxean antolatutako kontzertuan. Durangoko Rock Izar eskolan grabatutako lanean bildu eta kaleratu berri dituzten 10 kantak eskaini zituzten Hiltegixen, taldea orain bi urte berreskuratu zuten Txaber, Mani, Baron eta Dummy gazte elorriarrek. Kostata baina eurek azaldu zigutenez, 'powerpop' estiloko kantak dira *Enloquecer*, *Besos tatuados*, *Mi droga*, *Perra vida*, eta *Ser o no ser* bezalako izenak dituztenak.

Eurekin batera, Mañariko gazteek iaz antolatutako maketa lehiaketa irabazi zuen Namek Planet talde elorriarrak ere kontzertua eskaini zuen Berrizko jaietan Hiltegixen. Euren ustez, taldearen lana ezagutzera emateko modurik aproposena delako, ahalik eta kontzertu gehien ematen saiatzen dihardute elorriarrek.

**Mongoren estreinaldia**

Beste disko berri baten aurkezpena izango da gaur, urtarrilaren 23an, Durangoko Plateruena kafe antzokian. Aspaldi durangartuta dagoen Xabier Elias "Mongo" bilbotarrak izen bereko taldearekin eskainiko du gaur gauean kontzertua, eta bertan aurkeztuko ditu disko berriko kantak.

Pianoa eta Mongoren ahots eta kantaera berezia dira talde honen ezaugarri bereizgarriak, eta ohikoaz aparteko diren abestien letrak ere azpimarratzekoak dira: ironikoak eta entzulearen irribarrea eragiten dutenak izaten dira. Erritmoari dagokionez, jazza, bluesa eta bossa nova bezalako ukitu latinoak ere nabari dira.

> Gaur, 22:00etan, joko ditu Mongok disko berriko kantak Plateruenean

> Malo izen bereko diskoa aurkezten izan zen Berrizen

Horrelakoak dira Durangoko Rock Izar eskolako estudioan diskorako grabatu berri dituen kantak ere; hain justu, gaur Plateruenean aurkeztuko dituenak.

Diskoaren grabaziorako Daniel Amat piano-jotzaile kubatarraren, Iker Uriarte bateria-joalearen, Sanchez baxu-jotzailearen eta Mikel Nuñez piano-jotzaile gaztearen instrumentuen soinua izan du Mongok lagun, beste instrumentu batzuk gehitu dizkioten kolaboratzaileekin batera.

Zuzenekoetan, berriz, beste osagarri bat ere izaten du Mongo taldeak, musikariak berak nabarmendu duenez, emanaldi horietan entzuleen eta taula gainekoen arteko den interakzioa. ■I.E.



> Jazz eta blues doinuak jotzen ditu Mongo talde durangarrak



ANTZERKIA>EMANALDIA

# Molièrek idatzitako testua oinarri hartuta

## 1668an estreinatutako 'El Avaro' antzeztuko dute asteburuan, Geroaren omenezko zikloan

Urtarrilean zehar, Geroa antzerki taldea omentzeko izango diren emanaldietan hirugarrena izan zen iragan zapatuko Dario Foren *Muerte accidental de un anarquista* obra. San Agustin kulturgunea bete egin zen, barre eta irribarreak eragin zituen komedia, eta antzezleen primerako lana oinarri duen obrarekin gozatzera.

> Barre egiteko eta gogoetarako aukera eskainiko du lanak

Zapatu honetan, Geroan aritutako Sardo Irisarri antzezlea lanean ikusteko aukera izango dugu San Agustinen. Urtarrilaren 24an, 20:00etan hasita izango da antzezlana.

Ondo pasatu eta barre egiteaz gain, gogoetarako aukera eskaintzen duen *El Avaro* antzezlana dakarte Durangoko San Agustin kulturgunera Albaceteko Eureka Teatro taldekoek. 1668 urtean estreinatutako lana da antzezlanaren oinarria; Molière autore frantsesak idatzitako testua da oinarrian dagoena. ■I.E.



# DANBAKA >



ESKUAK BETETA. Sari nagusiarekin eta ikusleen oniritziarekin irabazi dute Danbaka lehiaketa The Wet Bandekoek. ENEKO AZKARATE

# Saio borobila egin eta gero, The Wet Bandek sari bikoitza

Dotore bezain fin eta txukun jo ondoren, Mutrikura joan da sari nagusia

Ez zen lehia samurra izan, Adi Holden eta Norman berritasunekin etorri ziren-eta

**JON BEREZIBAR> elgeta**

Irabazi ala ez, parte-hartzaile zein ikusle, barikuan ordu txikiak arte iraun zuen festak, eta ospakizunak luzapena izan zuen gero Mutrikun. Ez da gutxiagorako: The Wet Band eskuak beteta itzuli zen etxera eta saio borobila egin izanaren poz guztiarekin. Finalak ez zuen huts egin, eta epaimahaiak ere ez gaueko hiru taldeak aukeratzerakoan. Garailea, baina, talde bakarra izan behar da, eta bidezko izatea utopia besterik ez ohi da izaten. Hala ere, inork ezingo die ukatu The Wet Bandekoei meritua, nahiz eta Adi Holdenekoen eta, batez ere, Norman taldearen saio basatia lehia gogorra izan.

Adi Holdenekoak hasi ziren ikusle urduri eta animatuak aztoratu guran. Aurretik erakutsi ziguten intentsitatearekin jolastuz eta Alex abeslariaren pasio eta indarraz beteranotasunak guztia irentsi dezakeela. Etorri ere, ikusleak berriz ezustean harrapatzeko asmoarekin etorri ziren. Ñabarduretan aberatsagoa izan zen bariku honetakoa, baina, agian, ez zuen izan aurreko saioak izandako distira edo xarma. Saioa, hala ere, ona izan zen.

Gaueko energia deskarga, beraz, egina zegoen, eta The Wet Bandekoek bestelako moduak behar izan zituzten gauaren jabe egiteko. Etxean jokatu zuten mutrikuarrek, Elgetara lagun autobuskada igo zuten-eta. Animoak ondo berotuta, hazten eta mamitzen joan ziren, eta zerua ukitu zuten bukaera aldera. Borobila eta aurrekoa baino askoz ere sinesgarriagoa izan zen The Wet Banden kontzertua. Bikain jardun zuten, eta aurkako iritzia izan zezaketenak aitzakia gutxirekin utzi zituzten.

Azkenik, Norman eta hain erakargarria den haien eromena. Abesti berriekin arriskatu zuen laukoteak. Aurrekoan leherketa hutsa izan zen haiena, eta barikuan gauza berriak probatzeko ausardia izan zuten. Apustu handia zen, zalantza barik, eta emaitzak ez zuen aurrekoak moduko batasunik. Hala ere, ezin zaie ukatu saria berdin-berdin joan zitekeela Eibarrera, eta pena da esku hutsik bueltatu behar izatea. Lehiaketa lehiaketa da.

Amaitzeko, sari banaketako nerbioen aurretik, Petti eta banda etorri zen piztiak baretzera, luxuzko gaua borobiltzeko.

### SARIAK

> LEHIAKETAKO TALDE ONENA
THE WET BAND.
Epaimahaia: "Zuzeneko oso osatua dute, musikari oso onak dira, eta nabarmentzekoa da koroak eta melodiak sartzeko duten gaitasuna; emaitza borobila da. Ziurtasunez ikusi ditugu".

> DEBAGOIENEKO TALDE ONENA
ADI HOLDEN.
Epaimahia: "Arriskatzen duen taldea da, zuzenean guztia ematen saiatzen dena eta zoramen puntua ere hartzen duena. Egiten dutena bizi dutela igartzen da".

> IKUSLEEN TALDEA
THE WET BAND.



# “Epaiketa hau El Salvadorren egin beharko litzateke”

Tuteran jaioa da, orain Durangon bizi den arren. San Jose Jesuitak ikastetxeko irakasleak askapenaren teologiaren gaineko tesia egin eban, Jon Sobrino El Salvadorreko jesuitaren ideiak oinarri hartuz. Tesia egiten zegoela, 1989an, jesuiten kontrako atentatua egin eben El Salvadorren. Laster epaiketa hasiko dabe Madrilen.




Koldo Katxo ≫Jesuita Iban Gorriti

**Epaiketa gertu dagoela-eta, gai horretaz gehiago jakiteko bildu gara Koldo Katxo jesuitagaz. Gertaera haretaz gainera, beste hainbat gai izan dogu berbagai: teologia, Ertamerikako egoera, gizarte eredua... bere tesiaz eta lanaz be aritu gara. San Jose Jesuitak ikastetxean hartu gaitu Koldo Katxo irakasleak.**

***Epaiketa hasteko dagoen honetan, aferaren jatorrira joko dogu. Kontatu egiguzuz gertaera haren nondik norakoak.***

1989ko azaroaren 16an izan zen gertaera hori. El Salvadorren bizi eben gerra egoeraren erdian, bertako estatu-agenteek Ignacio Ellacuria portugaleteko semea, Segundo Montes, Juan Ramon Moreno, Ignacio Martin Baro, Armando Lopez eta Joaquin Lopez y Lopez jesuitak hil egin zitueen; eurekin batera, Elba Ramos eta honen alaba Celina be bai. Aipatutako jesuitek lan handia egin eben El Salvadorreko behartsuen alde; gainera, euren filosofiaren oinarrian be jente txiroa zegoen. Boterearentzat deserosoa izan zen eurek egindako lana, eta hainbat eta hainbat atentatu izan ziren sasoi haretan. Gobernuak antolatu eban hilketa, oraindino demostratuta egon ez arren: errua gerrillari botatzeko moduan egin eben dena.

***Zer dela-eta egin zitueen atentatu horreek?***

Sobrino, Ellacuria, Montes, Moreno eta Martin Barok lantalde bat osatzen eben unibertsitatean, Ellacuria errektore zelarik. Lantalde horrek planteamendu berri bat egin eban, latinoamerikako oinarrizko eliz elkarteekin batera, Vatikanoaren bigarren kontseilua eta gerora. Euren arabera, jakintza eta unibertsitateko ikerkuntza ez ziren inpartzialak; euren partzialtasuna El Salvadorreko behartsuen alde zela adierazo eben. Fedea justiziagaz lotzen eben, eta giza eskubideen kontrako neurriak salatzen zitueen. Eragin handia eduki eben; izan be, Ellacuria oso ezaguna zen, eta prentsan be sarri agertzen zen eritziak emoten. Gainera, gerra egoera haretan gobernua eta gerrillaren arteko zubia zen, zeukan prestigio intelektual eta etikoagaitik.

***Zelan bizi izan zenduen El Salvadorreko gertaera?***

Ni Madrilen nengoen momentu horretan, teologiako tesia egiten, Comillaseko Unibertsitatean. Klasera joateko prestatzen nenbilela jakin neban albistearen barri, eta arraroa egin jatan Jon Sobrinoren izena ez entzutea. Gerora jakin neban, Sobrino Tailandian zegoela egun haretan, eta hilketatik libratu zela. Hain justu be, nire tesia Sobrinoren teologiaren gainekoa zen: askapenaren teologiaren ingurukoa. Kontuan izan behar dogu Sobrinoren ideiak Ellacuriaren hausnarketetan oinarrituta dagozela. Gertaera hori baino lehenago, Sobrinogaz izan nintzen nire tesiari norabidea emoteko asmoz; horregaitik daukat hainbesteko lotura bi jesuita horreekin eta El Salvadorren gertatutakoagaz.

> “Boterearentzat deserosoa izan zen jesuitok egindako lana, eta hainbat atentatu izan ziren sasoi haretan”

> “Euren partzialtasuna El Salvadorreko behartsuen aldekoa zela adierazo eben”

***Zergatik hartu zenduen Sobrinoren teologia zure tesirako gai moduan?***

Iruditzen jatan askapenaren teologiak lotura handia zeukala garai haretan munduan bizi genduen egoeragaz; batez be, latinoamerikako iraultza, justizia eta fede giroagaz. Ertamerikako jesuiten norabidea ezagutzen neban, eta filosofia horretako oinarrizko ikuspegi bat Jon Sobrinok emoten ebala uste neban: elkartasuna zen bere teologiaren zutabeetako bat. Horregaitik egin neban aukera hori.

***Suposatzen dot, gertaera harek guztiz baldintzatuko ebala zure tesia...***

Bai, dudarik barik. Teologia horren martiriek eta Sobrinoren jarrerak indar eta argi handiagoa emon eusten nire proiektua tesi horretan borobiltzeko. Gai horregaz

konprometitu eta bertan urtebetez egoteko aukera izan neban. Errealitatea ezagutzea beti da lagungarria, asko jokatzen dozun arren. Okerrak edo txarto egindakoak be badagozela ikusi neban.

***Zer ideia nagusi atera geinke zure tesi horretatik?***
Jon Sobrinok kristau eta giza ikuspegietatik ondorioztatzen ebana: behartsuengandik kanpora ez dagoela salbazinorik. Sasoi batean, eliza edo fedetik kanpora ez dagoela salbazinorik esaten zen; Sobrinok, pertsona izateko miseria eta injustiziatik ezin dela ihes egin planteatzen dau. Horri aurre egin behar jakola gizaki eta sinestun lez. Nire ustez, ideia hori baliogarria eta ona izango litzateke europarrontzat be, ateismo eta erlijio fundamentalistak alboratzeko.

***Zelan baloratzen dozu jesuita horreek egindako lan teoriko eta praktikoa?***
Oso ondo uztartu zitueen lan teorikoa eta praktikoa. Lehenago aipatu dogun lan intelektualaz gainera, bertako behartsu eta kristauekin hartu-emon sendoa zeukien; hurbilekoak ziren hango herritarrentzat.

***Madrilgo Auzitegi Nazionalean epaiketa prozesua hastekotan dira...***
Komenigarria da ikustea gero han gertatu zena. Epaiketa bat egin zen bertan bi urteren buruan, bi akusaturen kontra 30 urteko kartzela zigorra ezarriz. Halan be, 1992an amnistia bat etorri zen, eta kalera irten ziren. Geroztik, hainbat saiakera egin dira berriro prozedura bat zabaltzeko, baina autore materialengandik aparte, autore intelektualak nortzuk ziren argitzeko eskatzen zen. Saiakera horreek guztiek ez dabe aurrera egin. El Salvadorreko inpunitatearen aurka egitea beharrezkoa zela uste zen, eta orain Madrilen hasiko den epaiketa prozesua jarrera horrenganako keinu bat dela esango neuke. Dena dela, bi gabezia daukaz: ez dira autore intelektualak epaituko, eta, epaiketa El Salvadorren egin beharko litzateke.

***Zer egoeratan aurkitzen dira gaur egun askapenaren teologia eta Ertamerikako mugimendu hori?***
Gauzak asko aldatu dira azken 20 urteotan: Ertamerikako gatazka ugaritan akordioak lortu dira, askapenaren teologia leku askotatik bonbardatua izan da, kristau elkarteak indar barik egon dira... Jesuita horreen faltak be mugimendua ahuldu eban. Baina, halan be, unibertsitateak aurrera jarraitu dau bere leloagaz: fedea eta justizia. Kontua da garai berrietara egokitu behar izan dabela; izan be, akordio ugari egon arren, arazo sozial izugarria dago oraindino. Ertamerikako aginteen inpunitatea be ez da desagertu. Jon Sobrinok hor segitzen dau, nahiz eta arazo asko izan dituen Vatikanoagaz; Sobrino garai haretako mugimenduaren ikono edo historiko moduan geratu da. Askapenaren teologia egiten da, eta behartsuen aldeko konpromisoak aurrera darrai.

***Vatikanoaren aldetik arazoak izan dira, beraz?***
Militar edo estatu boteretsuez gainera, elizako buru batzuek be erditik kendu gura izan dabe askapenaren teologia, bere ideiek eta jarrerak traba egiten dauelako. Bere berba oso librea da, eta gaur egun be salaketaren alde jartzen da. Jon Sobrinok pertsonalki jasan dau hau guztia, zuzenean berba egin dabe bere kontra. Baina Sobrinok bere eskola hor itzi dau; jarraitzaileak badaukaz eta askapenaren teologia bizirik dago, makalago bada be.

KOLDO KATXO

> "Gertaera hori baino lehenago, Sobrinogaz izan nintzen nire tesiari norabidea emoteko asmoz; horregaitik daukat hainbesteko lotura jesuita hareekin"

> "Martiriek eta Sobrinoren jarrerak indar eta argi handiagoa emon eusten nire proiektua tesi horretan borobiltzeko"


Iban Gorriti

## Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean bi urte daroaz irakasle; bere tesia egunerokotasunean praktikara eroatea dau erronka nagusi

> "Elizak arazo zaharrentzako erantzunak ditu, baina berriei erantzuteko egokitu behar dau"

***Elizak aldaketarik behar dau jarrera edo gauzak ulertzeko ikuskeran?***
Gaur egungo egoeran, Euskal Herriko testuinguru soziopolitiko eta kulturalean, gizartea asko aldatzen dabilela ikusten dogu, eta eliza zaharkituta geratu da. Arazo zaharrentzako erantzunak daukaz, baina berriei erantzuteko egokitu behar dau. Aita Arrupe XX. mendeko profeta izan zen zentzu horretan, berak esan eban hanka sartu ahal genduela, eta hanka sartu dogu. Hankasartze handiena, beldurragaitik aldaketarik ez emotea da. Azken urteetan aldaketa batzuk emon direla ikusi dogu, baina agian atzerantzakoak izan dira.

***Sobrinok dinonez, mundua gaixo dago. Sendatzeko, txiroak hartu behar dira kontuan. Ideia berekoa zara?***
Sobrinoren analisia Ertamerikatik haratago doa, gaur egungo globalizazinoak horretarako aukera emoten dau-eta. Badirudi munduaren zati bat ondo bizitzeko beste erdia sobran dagoela. Pobrezia aspaldi egon da leku batzuetan, eta orain krisia heldu jakunean geu be begiak zabaldu eta konturatzen hasi gara. Globalizazinoak aukera batzuk emoten ditu: komunikabideak, merkatuak zabaltzea... baina finantzaarloan huts egin dau. Sistema neoliberal honek porrot egin dau orokorrean, eta geroago eta gehiago gara bide alternatiboetatik altxatzen garenak. Halan be, ez dogu asmatu gure baloreak edo utopia bateratzen; globalizatzeko aukera emongo dauen sistema bati izena ipini behar deutsagu.

***Zure tesi edo lanetik aurrera, zein da zure eginbeharra?***
Nire erronka nagusia teoria eguneroko praktikara egokitzea da; askapen ikuspegi batetik nire ikasle gazteak zelan heziko ditudan asmatzea. Horretarako, faktore batzuk kontutan izan behar ditut: 128 urte bete dituen Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean nagoela, Jesusen Lagundiak zer norabide daroan, Jesuitok Euskal Herriko hizkuntza eta kulturaren alde egin dogun hautua, fedea eta elkartasuna gazteriaren artean zabaltzea... Erronka gatxa da aurrean daukadana, baina interesgarria eta polita be bai. ■ Markel Onaindia.

> "Pobrezia aspaldi zegoen leku batzuetan, eta orain, krisiagaz, geu be horretaz jabetzen hasi gara"

# ERITZIA>

## Gutunak

### Homeopatiaz

Askotan eztabaidatzen da homeopatiaren oinarri zientifikoaz. Esaterako, aurreko ANBOTO bateko artikulu batean zera esaten zen: homeopatiaren sendatzeko modua fede kontua dela, metodo zientifikoarekin bat ez datorrelako. Lehenik eta behin, zientzia mugatua da, etengabe aurkitzen ditu ezezagunak diren alor berriak, eta jadanik ez du dena azaltzerik. Bigarrenik, zientziaren eta fedearen artean metodo zientifikoarekin bat ez datozen errealitateak ere badaude. Maitasuna formula matematiko batek azal dezake? Ez. Fede kontua da orduan? Ezta ere. Ondorioz, metodo zientifikoan oinarritzen ez diren errealitate asko daude; esperientzietan oinarritzen direnak, esaterako. Hain zuzen ere, esperientzia eta esperimentazioa dira erremedio homeopatikoek ontzat hartzen dituztenak.

Homeopatiaren aitzindaria Samuel Hahnemann izan zen, bere garaiko medikuntzarekiko lilura galdu zuen medikua, eta jadanik 200 urtetik gorako historia duen disziplina da homeopatia. Bere eraginkortasuna frogaturik dago aspalditik, eta jardunbide mediko eta terapeutiko zabala izatea lortu du. Izango da homeopatia behar bezala aplikatzen ez duenik, egia da, baina gainerako ogibide edo lanbideetan legez. Oro har, emaitzek diote homeopatia erreminta eraginkorra dela gaitz fisikoez gain, emozionalak, existentzialak, espiritualak… tratatzeko. Amaitzeko, zera aipatu behar da: "pentsamendu magikoaren" batere zaleak ez diren Alemanian eta Frantzian, esaterako, osasun publikoaren barruan dagoela txertaturik homeopatia.

Aurora Julià, homeopata. (Abadiño)

### "Poltsa bete euskaraz"

Hil honen 9ko ANBOTOgaz batera jaso neban 'Poltsa bete euskeraz' izeneko Amankomunazkoaren poltsatxoa.

Mila esker, baina zoritxarrez paper ontzira bota behar izan neban, zeren eta "Mañariako Udala" zekarren eta horri erratu nabarmena deritzot. Ez dakit noren errua den, baina onuragarria da gomuta araztea 1979an argitaratutako Euskal Herriko Udalen Izendegia, zeinetan agertzen ziren zazpi herrialdetako 652 herri izen eta euren jentilizio eta 123 orrialdean euskeraz, 134an gaztelaniaz eta 145an frantsesez argitzen zen zeintzuk herriren izenak artikuludunak diren eta zelan deklinatzen diren "Bizkaia" izena bezala "-a" markarekin. Durangaldean hiru: Ermua, Mallabia eta Mañaria. "Mañariko kalean San Roke gabian..." dino trikitrixa-kanta herrikoi batek, eta beste batek, ordea, "Durangon bazkalduta Mañarian gora..." Beraz, argi dago nominatiboan eta inesiboan gordetan dauela artikulua eta bestetan ez. Mañaria nahiz beste inguruko edozein euskaldun zaharrek ez dau hutsik egiten: 'Mañaridjan' edo 'Mañaridjen bisi da' ahoskatuko dau, baina, gero, "Mañarira doa", "Mañaritik gora Urkiolako aldatza"; "Mañariko neskak" eta ez "Mañariako neskak".

Ermuan eta Mallabian ondo soluzionatu eben "Eremua Hiriko Udala" eta "Mallabia Elizateko Udala" –ez "eleizate" giputzez, hori menbreteetarako–, jakin dakielako ermuarrek "Garaiko plazan otea loran, Ermuan asentzioak". kanta ezaguna, baina gero testu baten "Ermuko alkateak" edo "Mallabiko alkateak" esan eta idatzi behar dela, eta ez "Ermuako alkatea" edo "Mallabiako alkatea". "Bizkaia" kasuan bezala, beraz: Bizkaia, Bizkaian, Bizkaira, Bizkaitik, Bizkaiko... deklinatu behar dira gure hiru herriok. Hortaz, baita herritarren izen edo jentilizioez, Durangaldeko herri eta auzo nagusietakoez... ez da hainbeste urte idatzi nebala ERAZ aldizkarian. Orain ia hogeita hamar urte 652 udaletxetara bialdu zituen Euskaltzaindiak aitatutako izendegiak.

Jose Luis Lizundia (Durango)

### Urbinako gertaera

Urtarrilaren 17an, poliziak, inpunitate osoz, masakrea eragin nahi izan zuen AHTren aurkako manifestazioan.

Bidean, Guardia Zibilaren kontroletan mehatxuak entzun genituen ("Esto es España, esto es una guerra y vais a caer todos").

Manifestazioan polizia autonomikoaren eta obretako zaindarien presentzia beldurgarria zen. Amaitzean, ehunka pertsona obretan sartzen ahalegindu ginen, eta batzuek lortu zuten. Berehala, polizien erantzun basatia hasi zen. Obretara heldu zirenak lurrean eseri ziren protesta baketsua egiteko. Poliziek, ordea, hasieratik ekin zioten erabateko bortizkeriaz: pilotakadak, porra kolpeak, furgonetak ziztu bizian jendearen artean… Eraso haren ondoren, eta orduan bakarrik, jaurti zituzten harriak batzuek; ez alderantziz, komunikabideek dioten moduan.

Poliziei gomazko pilotak amaitu zitzaizkien eta gehiago ekarri zizkieten. Helikopteroa etengabe ibili zen gure buruen gainean, une batzuetan lurretik oso-oso gertu.

Obretatik joatean, atzetik etorri zitzaizkigun pilotakadak botatzen. Herrira itzultzeko pista estuan ehunka persona geunden, eta ezin genuen arineketan egin. Aurrerago, poliziaz osatutako lerro bat topatu genuen parean, eta batzuk mendira joan ginen ihesi. Berriro kargatu zuten. Leku horretan, pista zubi baten azpitik pasatzen da, eta hangoa beldurgarria izan zen: bazterretatik egin genuen aurrera ahal zen moduan, porrekin egurtu gintuzten, pilotakadak bota zituzten zubipean inolako kontrolik gabe… Jende gehiago atxilotu eta zauritu zuten han.

Aurrerantza jarraitzean jende asko herrenka zihoan kolpeengatik. Herrira heltzeko buelta luzea eman genuen, poliziaren furgonetak baitzeuden.Menditik ere beste talde bat noraezean zebilen zubipeko kargatik ihesi, helikopteroa gainean zuela.

Herrian, autobusetara joan ginen. Autobus bi irtetean, poliziek geldiarazi egin zituzten. Jende guztia jaitsiarazi eta hormara begira jarri zuten.

Bitartean, Urbinako "paisaia" ikaragarria zen: jendea herrenka, besteren bat bekokian izotza jarrita kolpeengatik… Eta gainera, geroago, poliziak sarraskia luzatu zuen herrian.

Urbinako gertaerak oso-oso larriak izan ziren. Baina, ez dezatela pentsatu EAJk, EAk, PSOEk eta PPk horrela ezer lortuko dutenik. Ibarretxek eta Gereñuk hipokrisia osoz esaten dute AHTaren aurkako oposizioa bermatuta dagoela baketsua bada… Urbinako protesta ezin baketsuagoa izan zen gure aldetik. Desobedientzia zibil masiboa egitea zen asmoa; obrak modu baketsuan okupatzea. Baina euren borreroek indarkeria basatiz erantzun ziguten.

Urbinan jende piloa atxilotu, zauritu, ospitaleratu eta identifikatu zuten; izan ere, jende mordo-mordoa elkartu ginen. Horrek argi uzten du herri honetako zati handi bat AHTaren aurka gaudela, eta gure konpromisoaren bidez lurraren eta gizarte eredu justuaren alde borrokatuko garela.

Azkenik, lotsagarria izan zen komunikabide gehienen jarrera. Gezurrez betetako bertsio poliziala zabaldu zuten; izan ere, zelan demontre azalduko du Jaurlaritzak sarraskia eragin duela manifestazio baketsu batean?

Argi dugu gure bidea zuzena dela, eta ez erasoekin, ez atxiloketekin, ez mehatxuekin, ez gaituzte isilaraziko.

Durangoko AHT Gelditu! Elkarlana

**Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
**Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org**
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**
**zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

■**kolaborazinoa**



Aitor **Aurrekoetxea**

### Palestina

Onartezina: onartezina izan da Gazan gertatu dena. 1.300 pertsona inguru hil dituzte azken aste hauetan, Israelek bultzatutako sarraski kalifikatu ezina den horretan.

Hamas erakundearen kontrako ekintza dela aitzakia hartuz, zibilak (300 bat ume tartean) akatuak izan dira era maltzur eta koldarrean. Izan ere, denok ondo baino hobeto dakigu judutarren aurka duela 65 urte gertatu zena. Ordura arte, modu zientifikoan ia sei milioi pertsona hilak izan ziren naziek asmatutako gas kamaren bitartez. Mundua mutu utzi zuen fenomeno horri Holokaustoa deitu genion. Ondorioz, judutarrek bigarren guda bukatu zenean, aspaldian nahi zutena jaso zuten; palestinarren lurra okupatu eta beraien estatu propioa eraiktzea, nazioarteko komunitate desorekatuaren babes osoarekin.

**"AEBen, EBren eta NBEren jarrera iheskorra ezin dugu inolaz ere onartu"**

Palestinaren sufrikarioa hor hasi zen eta gaur pairatzen ari diren gatazka desproportzionatuaren adibiderik esanguratsuena Gazan gertatu dena da.

Gaur, atzo bezala, Estatu Batuen, Europar Batasunaren eta Nazio Batuetako Erakundearen jarrera iheskorra ezin dugu onartu, eta erabiltzen ari diren moral bikoitza salatu beharko genuke ozenki.

Argi geratu da, berriro ere, edozein gatazkatan hildako guztiak ez direla berdinak, eta, zorigaitzez, giza eskubideen porrota gizaki guztion porrota dela.

Euskal Herritik, nire uste apalean, gure elkartasunik beroena bidaltzeaz gain, mobilizazio erraldoi bat antolatzea dagokigu (Bartzelonan egon den modukoa), estatu sionistari beti aurrean egongo garela argi uzteko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2009ko urtarrilaren 23a - 8. urtea - 315 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako Udal guztiak:

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar

**Zuzendaria**: Jone Guenetxea.
**Erredakzio burua**: Joseba Derteano.
**Administrazioa**: Itziar Belar eta Miren Abasolo.
**Publizitatea**: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
**Erredakzioa**: Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onaindia
**Testu zuzentzailea**: Igor Elortza.
**Maketazioa**: Ainhoa Arizmendiarrieta.
**Argazkilariak**: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

Anbotok ez dau bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, eritzi artikuluetan edo gutunetan adierazotako esanen eta eritzien erantzukizunik.





# Durangaldeko EGUTEGIA 09

ohiko lekuetan salgai

3€








## HONAKO LEKUETAN AURKITUKO DUZU

**Iurretan:** •Mila janari-denda •Urien liburu-denda; **Garai:** •Herriko taberna; **Durango:** •Alpino taberna •Hitz liburu denda •Urrike liburu denda •Arkarazo •Pol-Pol •Ibaizabal ikastola •Kurutziaga ikastola •Gozo-txori •Plateruena •Herriko taberna; **Atxondo:** •Mari okindegia •Erosle •Itziar taberna; **Elorrio:** •Tximeleta •Parra •Txintxirri ikastola •Ilargi; **Otxandio:** •Prentsa-denda •Danoena taberna; **Mañaria:** •Herriko taberna; **Izurtza:** •Azkonizaga •Herriko taberna; **Mallabia:** •Okindegia; **Zaldibar:** •Imendia •Baratza •Herrikoa; **Abadiño:** •Estankoa •Zure denda •Petite •Nagusien egoitza •Txirri txirri •Larrano; **Berriz:** •Estankoa •Amalur liburu-denda •Fonda .

anboto komunikabideak

# AGENDA>

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 23an, 22:00etan

## UMORE, ANTZERKI ETA MUSIKA KOKTELA

Milaka ikusle erakartzen dituen umore, antzerki eta musika koktela ekarriko dau gaur Arriola antzokira Ron Lalá taldeak. 'Mundo y Final' ikuskizunak bost musiko eta aktore, 20 musika instrumentu, eta, erritmo neurribakoa daroen 20 sketch igongo ditu oholtza gainera, suntsitze bidean dogun planeta honi errepasoa emoteko. Ironiak, irudimenak eta (autor)kritikak bustitako obra dogu.

## ANTZERKIA

### BERRIZ

›› **'Maldito parné' (Glu-Glu Producciones)**. Urtarrilaren 23an, 22:00etan, Kultur Etxean.



›› **Umeendako antzerkia: 'Kartoi Biraka' (Markeliñe)**. Urtarrilaren 30ean, 17:30ean, Kultur Etxean.

### DURANGO

›› **'El Avaro' (Eureka Teatro-Albacete),** urtarrilaren 24an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.



### ELORRIO

›› **'Mundo y final' (Ron Lalá),** urtarrilaren 23an, 22:00etan, Arriola antzokian.

›› **Umeendako antzerkia: 'Joanen ilargia' (Teatre Nu),** urtarrilaren 25ean, 17:00etan, Arriola antzokian.



### ERMUA

›› **'Los ángeles no tienen hélices' (Dani Perez),** urtarrilaren 23an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

›› **Umeendako antzerkia: 'Había una vez… dos pies' (Teatrino dei Piedi),** urtarrilaren 24an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.



## BERTSOAK

### ABADIÑO

›› **Bertso-afaria,** urtarrilaren 30ean, 21:30ean, Abadiñoko Gaztetxean. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek jardungo dabe. Tramagile lanetan, barriz, Josu Goikoetxeak. Txartelak Larrano tabernan eta Oregi jatetxean lortu leitekez. Abadiñoko Bertso Eskolak eta Abadiñoko Udalak eratuta, San Blas jaiak direla-eta.

## BESTEAK

### DURANGO

›› **Txiki Parka,** Landako erakustazokan. Hainbat jostailuz hornitutako espazio egokitua 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Urtarrileko, otsaileko eta martxoko asteburuetan Udaleko Kultura Sailak eratuta.

### ERMUA

›› **Extremadurako txarri-boda.** Urtarrilaren 25ean, 10:00etan, Extremadurako zentroan. Extremadurako Kultur Zentroak eratuta.

### IURRETA

›› **Santa Agedako koplen entsegua.** Urtarrilaren 27an eta 29an, 21:00etan.

### ZORNOTZA

›› **Gauero: Gaztetxoendako gaueko aisialdi programa (10-14 urte).** Urtarrilaren 23 eta 24an, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta zentroan.

## DANTZA

### DURANGO

›› **Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria'(AIKO taldea)**. Urtarrilaren 27an, 19:30ean, Plateruena kafe antzokian.

## DEIAK

### DURANGO

›› **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak deituta.

›› **Bost eurogaz saritutako +Dendak elkarteko establezimenduetan banatutako Gabonetako loteriaren 68.258 zenbakiaren 19.600 partizipazinoak kobratzeko,** urtarrilaren 12tik aurrera dago aukera, Nafarroako Aurrezki Kutxaren sukurtsalean.

### ELORRIO

›› **Berbalagunen parte hartzeko izena emoteko epea hasita dago.** Urtarrilaren 27ra arte, Iturri kultur etxean, Uztargi tabernan eta AEK-Abizari euskaltegian.

## ERAKUSKETA

### BERRIZ

›› **'Basoak klima aldaketaren aurrean'. Basoko injineru teknikoen elkartea.** Kultur Etxean.

### DURANGO

›› **Geroa antzerki taldeari omenaldi erakusketa.** Otsailaren 7a bitartean, San Agustin kulturgunean. Egunero, 18:00etatik 20:00etara.

›› **'La aventura con el otro. Bestearekin abentura'. Leo Simoesen argazkiak.** Otsailaren 1a arte, Arte eta Historia Museoan.



### ERMUA

›› **Margoak. Mugartea taldea.** Urtarrilaren 31 bitartean, Lobiano kulturgunean.

### ZORNOTZA

›› **'Muros de la vergüenza'. Sonia Ruedaren argazkiak.** Urtarrilaren 31 bitartean, Zelaieta zentroan.




## IKASTAROAK

### DURANGALDEA

›› **Guraso Eskolak**, otsailaren lehenengo astean hasita (90 minutuko zortzi sesino), Durangaldeko hezkuntza zentroko udal lokaletan. Durangaldeko Mankomunitateko Drogomenpekotasun Prebentzinorako Sailean (Durangon) emon leiteke izena, urtarrilaren 27a bitartean (94 620 05 20).

›› **'Zure antsietatea kontrolatzen ikasi gura dozu?'**, emakumeendako antsietatea kontrolatzeko ikastaroa. Otsailean hasita. Astean behin izango diren hiru orduko 15 sesino egingo dira, Durangoko Landako osasun zentroan. Eskolak, astelehen edo eguenetan izango dira, 16:00etatik 19:00etara (94 620 05 20).

### DURANGO

›› **Dendaketan Merkatariendako euskara ikastaroak.** Hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila bategaz hasi gura dabenei zuzenduta. Udaleko Euskara Sailak eratutako ikastaroak dira. Izena emoteko epea, barriz, zabalik dago otsailaren 6a bitartean (94 603 00 16 / *gukeuskaraz@durango-udala.net*).

›› **Ostalariendako euskara ikastaroak.** Merkatariendako azken hiru urteetan eratutako ikastaroen emaitzak ikusita, euskara ikasteko interesa daukien ostalarien beharrei erantzuteko asmoz antolatu ditu eskolok Udaleko Euskara Sailak. Hasita dago matrikulatzeko epea, otsailaren 6a bitartean. Durangoko ostalaritza establezimenduren batean lanean diharduen edonork parte hartu leike, eta hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila bategaz hasi gura dabenei begira (94 603 0016 / *gukeuskaraz@durango-udala.net*).

›› **Okintza eta gozogintza ikastaroa,** urtarrilaren 20an hasita, Durangaldeko Mankomunitateak antolatuta eta eskualdeko adinekoei zuzenduta. Otsailaren 24a arte iraungo dau eta Lanbide Prestakuntzarako Zentroan emongo dabe. Saioak, martitzenetan 15:30etik 18:00etara. Izena emoteko Mankomunitateko Adinekoen Sailera jo leiteke (Askatasuna Etorbidea 6, Durango). Lekua mugatua izango da: (94 620 05 46 / 94 620 18 60).



›› **Barreterapia ikastaroa,** urtarrilaren 31n hasita, Berbaro elkarteak eratuta. Sei orduko iraupena izango dau, 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara. Arduradunak: Edurne Lasa Magisteritza eta Pedagogia Terapeutikoan diplomatua, eta Jose Mari Larrañaga FP administratiboa. Biak dira UEUko kide eta aktoreak. Gitxienez 10 laguneko taldea beharko da (gehienez 25) (94 620 19 18 / berbaro@berbaro.com / www.berbaro. com).

›› **Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologikoki hazteko', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'**. Izena emoteko epea zabaldu dabe: Adinekoen Udal Egoitzan, 11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

### IURRETA

›› **Ikima tailerrak: Komiki tailerra (Anartz Aranguena)**, urtarrilaren 23an eta 30ean, 17:30ean, Udal Liburutegian.

## IKUS-ENTZUN

### ERMUA

›› **Diaporama: 'A Oriente en bicicleta' (Andoni Rodelgo eta Alice Gouffart)**, urtarrilaren 27an, 19:00etan, Lobiano kulturgunean. Bigarren zatia.



## IPUINAK

### IURRETA

›› **'El hombre avión' (Ze Jam Afane-Camerun)**, helduendako ipuin kontalaria, 20:00etan, Liburutegian.

### ZALDIBAR

›› **'Itsaminez' (Rosa Martinez ipuin kontalaria) txotxongilo ikuskizuna,** urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Udal Liburutegian (Lau eta bederatzi urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta).

## JAIAK

### BERRIZ

### San Anton

›› **Eskualdeko XXVIII. Barazki eta Fruitu Erakusketa**, urtarrilaren 25ean, 11:00etatik aurrera, probalekuan. **XIII. Artisautza Azoka**, Olakueta pilotalekuan. Era berean, Urtiaga plazan, 12:00etan, **okela dastatzeko aukera**. **Iremiñe dantza taldearen erakustaldia**, 13:00ean, Olakueta plazan.

›› **Herri-kirol jaialdia: Harri-jasotzaileak eta trontzalariak**, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Olakueta pilotalekuan: **Arana anai**ek eta **Bizkaiko trontza txapeldunak** diren **Naiara eta Nerea Etxebarria**k jardungo dabe trontzan. Harria jasotzen, **Iñaki eta Inazio Perurena**k, eta **Miren Urkiola**k. Txorizo otartekoa eta edaria emongo ditue.



›› **Donien-atxa kenduko dabe**, urtarrilaren 26an, 20:00etan, eta, ondoren, 21:00etan, olakuetarren afaria.

### IURRETA

### Bakixa-Sebastian Deuna

›› **Asto probak**, urtarrilaren 24an, 19:00etan, Bakixan. Luhartz taldeagaz erromeria, 22:30ean.

›› **Meza**, urtarrilaren 25ean, 11:30ean, Bakixan. Ondoren, **Mikel Deuna dantza taldea**, 13:00ean, **bertsolariak: Eneko Abasolo "Abarkas", Miren Amuriza eta Igor Elortza.**



## LEHIAKETAK

### BERRIZ

›› **Emakumeen nazinoarteko egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a da: Udaleko erregistroan edo Udal Liburutegian. Lanek 'Martxoak 8, Emakumeen Nazinoarteko Eguna' eta 'Berriz' islatu beharko dabe. Sariak: 300 euro. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean irabazleak argazki kamara digitala lortuko dau (94 682 40 36-(6) / *berdintasuna@berriz.org*).

### ERMUA

›› **2009ko ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa jarri dabe martxan**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 5a da, Udaleko Kultura Saileko bulegoan. Sari bakarra emongo dabe: 450 euro.

### IURRETA

›› **Iurretako VI. Literatur Lehiaketa**. Sail bitan banatuko dabe, adinaren araberako taldeak osatuz: ipuinak eta bertso-paperak. Lanak urtarrilaren 29a bitartean aurkeztu leitekez, 12:00ak arte, Herri Bibliotekan. Lan sarituak liburutxo baten argitaratuko ditue, eta umeen sailean parte-hartzaile guztiendako diploma emongo dabe. Sariak: haur eta gazteek bono batean jasoko ditue (liburuengaitik trukatzeko), eta, helduek, dirutan.

## LITERATURA

### IURRETA

›› **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18.30etik 20:30era, Udal Liburutegian. Haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe, aurretik eskatuz gero. (94 681 27 26 / *biblioteka@iurreta.net*).

## MUSIKA

### DURANGO

›› **Mongo**, urtarrilaren 23an, 22:00etan, Plateruenean. Disko barriaren aurkezpena.




›› **Misery Index + Hate Eternal + Aeon + See You Next Tuesday,** urtarrilaren 24an, 21:00etan, Plateruenean.

### ZORNOTZA

›› **Iñaki Salvador: 'Te doy una canción' ikuskizunagaz**, urtarrilaren 23an, 21:00etatik 22:00etara, Zornotza Aretoan. Hainbat estiloko abesti bilduma eskainiko dau piano-jotzaile ezagunak.

›› **Ezinean**, urtarrilaren 24an, 22:00etan, Idabamusik aretoan.



## ZINE-KLUBA

### DURANGO

›› **'Un gran día para ellas'**, urtarrilaren 29an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

### ERMUA

›› **Umeendako zinema: 'Asterix en los juegos olímpicos'**, urtarrilaren 25ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

›› **Euskal Herriko zuzendari barrien zikloa: 'Bosque de sombras' (Koldo Serra)**, urtarrilaren 29an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

### ZORNOTZA

›› **'Con duende' zikloa: 'Las horas del verano' pelikula**, urtarrilaren 27an, 20:15ean, Zornotza Aretoan.



Urtarrilaren 23an, 21:00etan

## IÑAKI SALVADOR ZORNOTZA ARETOAN

Hainbat estiloko abestien bilduma eskaintzera jatorku Zornotzara Iñaki Salvador. 'Te doy una canción' ikuskizunean, besteak beste, 'Mediterraneo', 'Bizkaia Maite' edo 'Rabo de nube' lako abestiak batzen ditu. Ainara Ortega (ahotsa), Javier Mayor (kontrabaxua) eta Hasier Oleaga (bateria) ditu lagun musika- eta afektu-oroitzapenekin lotutako konposizinoak batzen dituen proposamen honetan.

## ZINEMA

### DURANGO

Zugaza

**El irtencambio**



*Zuzendaria: Clint Eastwood*
barikua 23: 19:00 /22:00
zapatua 24: 19:30 / 22:30
domeka 25: 19:30 / 22:30
astelehena 26 19:00 / 22:00
martitzena 27: 20:00

Umeendako zinema

**El ratoncito Perez 2**
zapatua 24: 17:00
domeka 25: 17:00

### ELORRIO

Arriola antzokia

**Leonera**




*Zuzendaria: Pablo Trapero*
zapatua 24: 22:30
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00

### ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

**My Blueberri Nights**



*Zuzendaria: Wong Kar-Wai*
zapatua 24: 22:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00

Umeendako zinema

**Winx Kluba: erreinu galduaren sekretua**
domeka 25: 17:30

## BOTIKAK

**Barikua, 23**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
**Zapatua, 24**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro / Mugica / Sagastizabal / De Diego / Campillo / San Roma / Balenciaga(Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
**Domeka, 25**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
**Astelehena, 26**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
**Martitzena, 27**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
**Eguaztena, 28**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
**Eguena, 29**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**SOS Deiak** ........................112
**DYA** .....................94 620 28 00
**Gurutze Gorria** ....94 681 09 49
**Osakidetza** ...........94 600 72 00
**Ertzaintza** ...........94 466 93 00
**Suhiltzaileak** .......................112

**GARRAIOAK**
Euskotren.............902 54 32 10
Durango .............94 681 02 32
Bizkaibus ............94 448 40 80
Pesa ....................902 10 12 10
Continental Auto ....945 286 466

**TAXIAK**
Abadiño ...............946 814 470
Matiena ..................606 459 988
Durango Geltokia ....946 811 001
Goco Tour .............946 202 860
Tele Taxi ...............944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia ......946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez ....670 678 273
M Galeano.............946 582 854
Iurreta .................946 201 565

**UDALAK**
Abadiño .............94 621 55 30
Atxondo .............94 682 10 09
Berriz ....................94 682 45 84
Durango .............94 603 00 00
Elorrio ..................94 658 27 12
Garai ....................94 681 63 93
Iurreta .................. 94 620 12 00
Izurtza ..................94 681 35 48
Mallabia ................943 17 14 61
Mañaria ................94 681 89 98
Otxandio .............. 945 45 00 20
Zaldibar ................94 682 70 16

**UDALTZAINGOA**
Abadiño .............94 621 55 33
Berriz ....................94 682 40 36
Durango .............94 603 00 10
Elorrio ..................94 682 02 18
Iurreta .................94 620 08 88

**BESTELAKOAK**
Arriola .................94 658 31 92
San Agustin ..........94 603 00 21
Zornotza Aretoa .....94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30
Txanporta KE ......94 620 36 47
Errota KE .............94 466 94 16
Gorabide ..............94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa ....94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME)......94 681 08 77
Araztegia .............94 620 28 00
Foru Ogasuna........94 681 07 42
INEM Durango .......94 681 12 96
Gizarte Segurantza 94 681 49 58
Epaitegiak.............94 603 00 51

**KIROLDEGIAK**
Igerilekua
Astola .................94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo .............94 623 14 38
Berriz .................94 682 43 74
Durango
(Landako).............94 621 51 30
Durango
(Tabira) ................94 621 51 50
Elorrio .................94 682 10 27
Zaldibar ................94 682 73 74

## EGURALDIA

9 / 20° **BARIKUA**
Hodeiek eta euriak gugaz jarraituko dabe. Hegoaldeko haizeagaz jarraituko dogu. Arratsaldean indartu egingo da eta gauean oso zakar ibiliko da. Horregaz batera tenperaturak be gorantz jarraituko dau.

8 / 10° **ZAPATUA**
Haize bolada biziak izango doguz, eta tenperaturak be behera egingo dau. Tenperatura atsegineta itziz, giroa nabarmen hoztuko da. Goizean zeruak hodeitsu jarraituko dau, arratsaldean osterteak zabalduz.

6 / 10° **DOMEKA**

8 / 9° **ASTELEHENA**

12 / 17° **MARTITZENA**

durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak

durangaldeko astekaria

# Egin zaitez harpidedun

doan!




harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
*harpidetza@anboto.org*-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

# KIROLAK


K. Aginako

# Sentsazio onen bila

Ohorezko B Mailan talde bi beste guztien gainetik daude: Gernika eta Hernani. Igoera Faserako horiexek sailkatuko dira, oker handirik ezean. Gehiago dira kalitatez, eta gehiago erritmoz zein indarrez. Irabazi dakiekeela uste izatea, Dickensen Pip gaztearen esparantzak izatea lakoxea da; baina, bestalde, hori horrela izanda ere, euren aurkariek ilusiorik handienarekin jokatzen dituzten lehiak dira. Durango Ilarduyak Gernikaren kontra jokatu zuen azkeneko jardunaldian etxean, eta 3-23 galdu zuen. Itxura ona ematea zen behinena, baina ez zuten asmatu, batez ere lehenengo zatian. "Partiduan sartuta barik, partiduari begira egon ginen", dio Aratz Gallastegi entrenatzaileak. Igandean, Hernaniren zelaian jokatuko dute. Partidua irabaztea zaila denez, helburu nagusi legez "sentsazio onak berreskuratzea" dute: "Geurea eman eta dakiguna zelaian erakutsi dugunaren sentsazioz bueltatu nahi dugu etxera".

Gallastegik lehenengo urtea du durangarren aulkian. Beraz, oraindik taldea ezagutzen eta egituratzen ari da. Nolanahi ere, taldearen errendimendua ona da, eta laugarren daude, Vigorengandik hiru puntura. Hirugarren postua eskura dutenez, horixe da ligan orain duten helburua.

Horretarako zein etorkizunari begira, taldeak bi alderdi hobetu behar dituela uste du. Batetik, alderdi fisikoa dago: "Jokoan eragin zuzena du, eta talde batzuekin alderatuta apur bat atzetik gaude". Bestetik, mentalki "indartsuagoak" izaten ikasi behar dutela dio. Hain zuzen ere, Gallastegiren iritziz, azken alderdi hori hobetzeko modurik egokiena "talde handien kontra jokatzea da". "Horregatik dira hain baliotsuak Hernaniren eta antzeko taldeen kontrako lehiak. Erritmoari dagokionez exigenteak dira, eta agresibitatea eta grina eskatzen dute. Horrelako partiduetan zailtzen da talde bat", dio. ■ J.D.

> "Etorkizunera begira fisikoki zein mentalki indartu egin behar dugu"

24 Abadiñok eskas hasi du xake liga

Euskal Ligako Lehen Mailan jokatu diren jardunaldi bietan galdu egin du Abadiñok. Zarautzen kontrako porrota, gainera, ez zen abadiñarren pronostikoetan sartzen

25 Kulturaleko emakumeak sendo

Areto-futbolean denboraldi oso ona osatzen ari da Durangoko Kulturala.Etxeko partidu guztiak irabazi dituzte, eta bigarren daude Getxo liderrarengandik bost puntura



Lau partidatik bakarra irabazi zuten Matienan jokatutako jardunaldian. Judit Fernandez

# Kaskar samar hasi du liga Abadiñoko Xake Taldeak

Lehen jardunaldi bietan galdu egin dute, helburua mailaz igotzea denean. Lehenbailehen erreakzionatu beharra daukate

Abadiño Xake Taldeak kaskar hasi du liga. Lehen jardunaldi bietan galdu egin du eta azken hirugarren dago sailkapenean. Oraindik badago denbora erreakzionatzeko, baina, orain galdutako puntuak ez dira bueltatuko eta, Ieray Galtzagorri jokalariak aitortzen duenez, "kezkatzen" hasita daude.

Etxean eta Zarautz talde igo berriaren kontra, porrota ez zen abadiñarren aurreikuspenetan sartzen (1,5-2,5). Partida bat irabazi, beste bat berdindu eta bi galdu zituzten. Galtzagorrik jokatu zuen lehenengo partidua, eta irabazi egin zuen sasoi batean bere ikasle izandakoaren kontra. Partida "berezia" izan zela dio, "erraz" irabazi zuena, baina badaezpada etxetik "ondo prestatuta" zekarrena. Hantxe hasi eta amaitu zen abadiñarren poza. Hurrengo hiru partidak ahazteko modukoak izan ziren: "Egia esanda, irabaztea espero genuen, baina ez gaude sasoian. Hasiera bakarrik den arren, arduratzen hasita gaude, taldea ez doala aurrera ikusten dugulako". Oraindik badago denbora, baina abadiñar gazteak ondo baloratzen duen moduan, "hasiera txarrak taldearen geroko jarduna baldintzatu dezake, galdutako puntuak errekuperatu egin behar direlako".

Bihar Gros Bren aurka jokatuko dute. Donostiarrak azkenaurreko daude, baina, berez, klub indartsua dira; jokalari profesionalak dituzte. "Zorionez, liga hasiera da eta beharbadaba ez dute talderik indartsuenarekin jokatuko. Horrela bada, irabazteko aukerak ditugu". ∎ J.D.

> "Badago denbora, baina apur bat kezkatuta gaude; ez gaude sasoian"

> "Hasiera txarrak taldearen geroko errendimenduan eragin dezake"

## Elorriok lehen gola jaso du

Ia 14 jardunaldi oso –1.245 minutu, guztira– eman ditu Elorriok golik jaso gabe Bigarren Erregionalean. Orduerdi falta izan zaio marka hausteko. Gainera, partidua erabakita zuela sartu zioten gola. Diezen mutilak 3-0 irabazten zihoazen, eta norgehiagoko amaitzeko 15 minuturen faltan Fruizko Ibai jokalariak zulatu zuen lehengoz elorriarren atea.

Nolanahi ere, taldeak hiru puntuak batu zituen, eta lider argia da. Abadiño bigarren dago 11 puntura. Abadiñarrek 3-0 irabazi zioten Ezkurdiri. ∎ J.D.

## Bigarren faseari ekin diote gure errugbilariek

Elorrio Rugby Taldeak erraz irabazi zion Gernikako talde filialari, gertakari handirik gabeko partiduan (32-12). Asteburuan Mungia-Kakarraldoren aurka jokatuko dute. Mungiak ere irabazi egin zion Universidad de Cantabria taldeari. Multzo horretan ligako 9.etik 12.era bitarteko postuak erabakiko dira.

Bestalde, Durango Ilarduya Bk galdu egin zuen bere multzoan, Arrasateren zelaian (26-12). Bihar ere etxetik kanpora jokatuko dute; Irunen kontra, hain zuzen ere.

Irunek galdu egin zuen Bigarren faseko estreinakoan Arratiko Zekorraken kontra (15-18). Multzo horretan Ligako 5.etik 8.era bitarteko postuak erabakiko dira.

> Asteburuan Mungia Kakarraldoren kontra jokatuko dute

## Adituarentxokoa




**GotzonGomez**
**• Errugbi entrenatzailea**

### XXI. mendeko errugbia

Errugbi munduan urte mordoska eroan arren, azken urteotan gure kirolak izandako aldaketek ustekabean harrapatu gaitue. Orain urte batzuk, ia ezinezkotzat jotzen genduen kirol honetan sosen bat kobratzea; gehienetan kontrakoa gertatzen baitzen: bakotxak bere poltsikotik ipini behar izaten eban fitxa, bidaiak eta gainerakoak ordaintzeko.

Azken boladan gauzak izugarri aldatu dira. Hasikeran hego hemisferioan –batez be, Frantzian eta Britainia Handian– hasi ziren diru-kontuak eta profesionalizazinoa aitatzen; urte batzuk geroago Espainiako Ohorezko Mailan hasi ziren kanpoko jokalariak ekartzen,eta halako megataldeak sortzen. Harrezkero, bide hori zabalduz joan da, eta errugbiko bigarren eta hirugarren mailetan ez da gatxa halako kasuak eta adibideak ikustea.

Horrek estatuko errugbiaren maila igotzea ekarri dau?

Nire ustez, ez da holakorik gertatu. Batetik, Ohorezko Ligako ordezkariek Europa mailako partiduren bat jokatu dabenean jasotako jipoia sekulakoa izan da; bestetik, selekzinoen arteko lehietan emaitzak ez dira aurreko urteetakoak baino hobeak izan.

Zer islatu gura dodan? Dirua izateak ez dauela beti emaitza bermatzen, eta gure eskualdeko taldeek orain arte jarraitutako ildo bera landu eta jarraitu beharko leukiela; hau da, errugbi-eskolak bultzatzea.

# Bost final ditu aurretik Elorriok eskubaloian



Asteburuan Donostiako Bera Bera bisitatuko dute. J. Fernandez

Orain arteko bederatzi jardunaldietan berdinketa bi besterik ez ditu lortu Elorrioko Eskubaloi Taldeak, eta azkenengoak dira. Preferentean inork ez du mailarik galtzen, beraz, alde horretatik ez dute presiorik. Hala ere, Elorrioko emakumeen denboraldi hasierako helburua mailaz igotzea zen, eta hori zaila izango da.

Preferente mailan zortzi talde daude, eta lehenengo laurek Igoera Fasea jokatzen dute. Orain, Elorriok puntu bi ditu eta laugarren dagoen Jarrillerasek hamar, liga amaitzeko bost jardunaldi falta direla. Hala ere, elorriarrak ez daude etsitzeko prest: "Lehia batzuk arerio zuzenen kontra ditugu. Esaterako, Jarrillerasen kontra berdindu egin genuen kanpoan, eta oraindik bueltakoa falta da. Gainera, jokalari berri bi etorri dira eta orain aldaketa gehiago ditugu", dio Ainhoa Apaolaza jokalariak.

Partidu batzuk gutxigatik galdu dituzte. Hala ere, orain arteko denboraldia txarra dela ez dute ezkutatzen: "Ezin dugu positiboki baloratu, gure helburua Igoera Fasea baitzen".

# Ez Ligari ez Kopari, ezeri ez dio muzinik egiten Kulturalak aurten



Aurrean presionatuz irabazi zioten Iraultzari. Judit Fernandez

## Areto-futbolean eta Lurraldekako Mailan bigarren daude; gainera, aurtengo urtean eurak dira euren buruaren entrenatzaile

Beste behin ere goi mailako denboraldia osatzen ari dira Durangoko Kulturaleko emakumeak. Etxean zazpi partidutik zazpi irabazi dituzte, eta kanpoan ere uzta polita batu dute: hiru garaipen, berdinketa bat eta porrot bakarra. Badakite bost puntu gorago duten Getxo Kantxa harrapatzea errekako uraren noranzkoa aldatzea bezain zaila dela, baina taldearen martxa ikusita azken segundoraino borrokatuko dute.

> Etxean partidu guztiak irabazi dituzte eta kanpoan, berriz, bostetik hiru

Joan zen astean 12-1 xehatu zuten Iraultza, eta bihar Kukuyagak beste zakukada bat hartu dezake. Getxo ere bere arerioak airoso azpiratzen dabil; Ligako talderik indartsuenak dira.

Amaia Egidazu taldeko jokalariak, taldearen martxa ezinhobeari buruz, ez dagoela "sekretu berezirik" dio: "Lagun taldea gara. Gehienok luzaroan gabiltza elkarrekin". Gainera, aurten ez dute entrenatzailerik: "Dena guk egiten dugu; entrenamenduak prestatu, partiduetarako konbokatoriak egin. Talde orekatua dugunez, denok minutu kopuru antzekoa jokatzen dugu".

Mailaz igotzeko eskubidea irabazita ere, ez dakite igotzea erabakiko luketen ala ez. Sarritan gertatzen da maila hauetan: desplazamenduak, lortu beharreko dirua, eskaini beharreko dedikazioa... dena biderkatzen da. "Gure helburua lagunekin kirola eginez ondo pasatzea da", dio.

Horrek ez du esan nahi Ligari muzin egingo diotenik, ezta gutxiago ere. Ligaren ondoren Kopa hasiko da, eta "hor ere badaukagu zereginik". Orain urte bi irabazi egin zuten Kopa.

Jokalari berriak sekula ez daude sobera eta gonbita luzatzen dute: jarri kontaktuan Kulturalarekin eta batu taldera. ■ J.D.

> "Lagun taldea gara; gehienok luzaroan gabiltza elkarrekin"

# Sasikoa eusten ari zaio Dosanporren presioari

Ohorezko B Mailan garesti dago mailaz igotzea. Bizkaitik talde bakarra igoko da, eta gozoki hori dastatu nahi duen hautagai asko dago. Oraintsu lider jarri denetik, Sasikoa postu desiratuari eusten ari zaio, baina, ez sufritu gabe. Joan zen astean 4-3 irabazi zion etxean azken postuetatik irten ezinda dabilen Euskaldunari.

Gainera, bigarren postuan eta puntu bakarrera duen Ancla Dosanporrek ez dio uzten arnasarik lasai hartzen. Hain zuzen ere, Sasikoak ezinegon bera sortzen zion Sestaoko taldeari, azken hori lider zegoenean.

Borroka horretan sartu beharra dago Laudioko Izkepot ere. Sasikoarengandik hiru puntura dago; garaipen bakarrera, beraz.

Durangarrek Comodon taldea jasoko dute etzi Landakon. Azken hirugarren dagoen taldeari irabazi behar liokete. ■ J.D.



Azkeneraino borrokatu beharra izango du Sasikoak. Kepa Aginako

# Abadiñok 640 kiloko txapela defendatuko du

Bihar, 17:00etan hasita, Euskal Herriko Sokatira Txapelketa jokatuko da 640 kiloen barruan, Abadiñoko probalekuan. Bost talde ariko dira lehian: Abadiño A, Abadiño B, Amaiur, Baiona eta Ustaritze.

> Bost taldeen artean Abadiñoko talde nagusia da faborito

Iazko jarduna ikusita, Abadiñoko talde nagusia faborito argia da. Aurten iazkoa berdintzea dute helburu.

Bestalde, atzo Gasteizen Euskadiko kirol erakunde onenari dagokion Euskadi Saria jaso zuen Abadiño Sokatira Taldeak.

Sari banaketa horietako protagonista izan zen Tabirako saskibaloi kluba ere. Durangoko klubak Berdintasunaren atalean jaso du Euskadi saria. ■ J.D.

## Agenda

### ARETO-FUTBOLA

LEHEN NAZIONAL B MAILA

**Sasikoa - Comodon**
Domekan, 12:00etan, landako kiroldegian

PREFERENTE MAILA

**Elorrioko Buskantza B - Soloarte B**
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

**Abadiñoko Gaztetxie - Bermeo**
Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian

**Abadiñoko Lagun - Arabella**
Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

**Kurutziaga B - Biarko gizonak**
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

**Hasi Durango - Saltzaileak**
Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

### SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako - Irlandesas**
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

**Tabirako - Salesianos**
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

**Tabirako - Barakaldo**
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

### ERRUGBIA

EUSKAL LIGA (emakumeak)

**Durango Ilarduya - Euskotran Gaztedi**
Domekan, 11:00etan, Arripausuetan

### FUTBOLA

LEHEN ERREGIONALA

**Iurretako - Apurtuarte B**
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

**Elorrio - Sondika B**
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

**Abadiño - Fruiz**
Zapatuan, 16:00etan, Astolan

### SOKATIRA

640 kilo arteko txapelketa

**Abadiño A, Abadiño B, Amaiur, Baiona eta Ustaritze**
Zapatuan, 17:00etan, Abadiñoko probalekuan

## SAILKAPENAK >

**Futbola /3. maila / 4.taldea / gizonak**

| | |
|---|---|
| 1- **Amurrio** | 45 |
| 2- **Portugalete** | 42 |
| 3- **Lagun Onak** | 41 |
| 4- **Elgoibar** | 38 |
| 5- Gernika | 35 |
| 6- Zamudio | 33 |
| 7- Beasain | 32 |
| 8- Santurtzi | 27 |
| 9- Arenas Getxo | 26 |
| 10- Laudio | 26 |
| 11- Zalla | 26 |
| 12- Amorebieta | 25 |
| 13- Leioa | 25 |
| 14- **Kulturala** | 24 |
| 15- Baskonia | 24 |
| 16- Alaves B. | 21 |
| 17- Zarautz | 18 |
| 18- **Eibar B** | 18 |
| 19- **Ordizia** | 18 |
| 20- **San Ignacio** | 13 |



Durangoko Kulturalak 28 gol sartu eta 28 jaso ditu orain arte

**Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ gizonak**

| | |
|---|---|
| 1- **Baskonia Fund** | 10 (+111) |
| 2- **Vitoria** | 10 (+192) |
| 3- **Logroño** | 9 (+138) |
| 4- **Ardoi** | 9 (+103) |
| 5- **Arabako EHU** | 7 (+16) |
| 6- Bide Bide | 7 (-18) |
| 7- **Tabirako** | 5 (-27) |
| 8- Pamplona UPNA | 4 (-67) |
| 9- Goierri-Verkol | 2 (-305) |
| 10- Getxo | 2 (-145) |

**Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ emakumeak**

| | |
|---|---|
| 1- **Bera Bera** | 14 (+290) |
| 2- **Abaroa** | 12 (+159) |
| 3- Gernika | 11 (+185) |
| 4- Ardoi | 11 (+99) |
| 5- Getxo | 10(+69) |
| 6- Obenasa | 10 (+58) |
| 7- **Tabirako** | 9 (+89) |
| 8- Atletico SN | 9 (+29) |
| 9- Arabako EHU | 6 (-25) |
| 10- Artieda | 6 (-62) |
| 11- Uni. Navarra | 5 (-25) |
| 12- Las Gaunas | 5 (-148) |
| 13- Irlandesas | 4 (-154) |
| 14- **Loiola** | 3 (-131) |
| 15- **Easo** | 3 (-206) |
| 16- **Astigarraga** | 2 (-2207) |

# ZINEMA>



## Urrezko dama ingelesa

**Kate Winsletek urrezko globo bi eskuratu ditu; DiCaprio dau lagun Revolutionary Roaden be**

Titanic itsasontzian ezagutu genduen Kate Winslet aktoresa ingelesa, Leonardo DiCapriogaz batera egin eban film arrakastatsuan. Urte dezente pasatu dira haizea eta itsasoaren aurrean besoak zabalik ikusi genduenetik, eta geroztik, hainbat bider izan dogu pantaila handian. Emoten dauenez, arrakastaren maldan gora joan ondoren, oraintxe ailegatu da Winslet izebergaren puntara, urrezko globo bi jaso ditu-eta orain dela gitxi.

Oscarren atariko ei diren urrezko globoen sari banaketan protagonista nagusi izan zen aktore britaniarra. Malkoen artean jaso zituen sari preziatu horreek; ezin eban sinestu, antza denez. Aktore onenari eta bigarren mailako aktore onenari emondako sariak beretzat izan ziren, oraindino estreinatzear dagozen bi pelikulatan egindako lanengaitik: Revolutionary Road eta The Reader, hurrenez hurren.

### Itsasotik kalera

Bariku honetan estreinatuko da Revolutionary Road filma, Winsleti aktoresa onenaren urrezko globoa ekarri deutsan lana, hain zuzen be. Bertan, Leonardo DiCaprio izango dau barriro alboan, bere hasieretako drama haretan legez. Beraz, Titanicen irudi eta istorioak gogora ekarriko deuskuz bikote honek gure zine aretoetan.

Sam Mendesek 2008an sortutako lana da Revolutionary Road. Ameriketako Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan grabatu dabe, eta Justin Haythe izan dau gidoilari. Hori bai, aipatu beharra dago Richard Yates idazlearen nobela batean oinarritua dagoela; zehatzago esanda, nobela horren egokitzapena da. Winslet eta DiCapriorekin batera, Michael Shannon, Kathryn Hahn, David Harbour eta Kathy Bates doguz aktore garrantzitsuenen artean.

### Familia amerikarra

Istorio hau AEBetan kokatuta dago, 50eko hamarkadan. Garai haretako bizimodua ikusi geinke Frank (Leonardo DiCaprio) eta April Wheeleren (Kate Winslet) begietatik. Bikote honek beti izan dau bere burua berezitzat, ideal garatuen araberako bizitza egiteko prest. Halan, bada, Revolutionary Roadeko etxe berrira lekualdatzen direnean hiriko inertziatik aske bizi gura dabe, eta sasoi haretako murrizketa sozialek loturik ez jokatzea erabakitzen dabe.

Halan be, denpora pasatu ahala, nahi ebenaren kontrakoa bihurtzen ari direla konturatuko dira: balorea galdu dauen zentzubako lan bat daukan gizona, eta pasino eta poztasun apur bat desiatzen dituen emakumea. Azken batean, bere ametsak betetzen ez dituen ohiko familia amerikarra osatzen dabe. Hortik aurrera, gauzak aldatzeko asmoa agertuko dabe, baina bidea ez da hain erraza izango. ■M.O.

### 3,2,1...

• **Sean Penn**: Antoine Fuquak Gregory Scarparen inguruko pelikula bat egingo du, eta Sean Penn nahi du protagonista pelikula berri horretan.

• **Russell Crowe**: Momentu honetan duen gizentasunaren erruz, *Nottingham* filma atzeratu egingo da. Ridley Scott da zuzendaria.



• **The Extra Man**: Katie Holmes, Kevin Kline, Paul Dano eta John C. Reilly aktoreek parte hartuko dabe Robert Pulcini eta Shari Springer zuzendarien film berrian. Otsailean hasiko dira grabatzen.

• **A ciegas**: Otsailean barik, martxoaren 6an estreinatuko da Meirellesen filmea. Jose Saramagoren *Itsutasuna* dauka oinarri; Julianne Moore da filmeko aktore esanguratsuena.

### HURRENGO ESTREINALDIAK >



**La mujer del anarquista.**
**Zuzendaria:** *Peter Sehr, Marie Noëlle*
**Aktoreak:** *Juan Diego Botto, María Valverde, Adrià Collado*

Sinopsia: Madrilen kokatuta dago istorio hau, pelikulako gidoigilearen familiaren historia hizpide duena, hain zuzen be. Ama eta alaba, gerrara joandako gizonaren eta aitaren zain dagoz. Ahalegin guztiak egingo ditue berriz elkartzeko, gizonak esperantza galduta daukan arren.



**El otro**
**Zuzendaria:** *Ariel Rotter*
**Aktoreak:** *Julio Chávez, Inés Molina, María Ucedo, Arturo Goetz*

Sinopsia: Juan Desouza da pelikula honetako pertsonaia nagusia. Tren batean herrialde erdirantza bidaiatzen dabil, eta bukaerara iristean, bere alboko bidaiaria ez dela esnatzen konturatzen da. Sekretupean, pertsona horren nortasuna hartu eta bizi berri bat hasiko dau.



**Arropiero. El vagabundo de la muerte**
**Zuzendaria:** *Carles Balagué*
**Generoa:** *Dokumentala*

Sinopsia: Manuel Delgado Villegasen kronika dokumentala dogu honako hau. "El arropiero" ezizenez ezaguna, Espainiar estatuko hiltzailerik handienetarikoa zen. Epaile, polizia eta psikiatrek hainbesteko krudeltasuna ulertu ezinik, betirako ingresatu eben barnetegi baten.



**Transporter3**
**Zuzendaria:** *Olivier Megaton*
**Aktoreak:** *Jason Statham, Natalya Rudakova, Francois Berleand, Robert Knepper*

Sinopsia: Frank Martin (Jason Statham) arrisku handiko merkantzien banatzailea da. Oraingoan, poltsa misteriotsu bi eta neska ukrainiar bat entregatu behar ditu, baina ez daki zer dagoen poltsetan, ezta neska nor den be. Konturatu barik, tranpa batean jausiko da.



# IRAGARKI TAULA

**saldu,erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...**
**aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna**

**ESKAINTZAK**
Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez umeekin...

**ERRENTAN EMAN**
Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barriztatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

**SALDU**
Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa.54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

**HARTU**
Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

**BEREZIAK**
Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

**OPARI**
Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita. ...

**ANB (tartea) + iragarkia 7789** (1,2€ + BEZ)
**Tel.: 94 621 79 02**

# IRAGARKIAK

**OHARRA**
Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOk, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

**Berbaro elkarteak**
Gazte arloroko laguntzailea behar du. Lanaldi erdiko kontratua, berehala hasteko.
Tel.: 94 620 19 18
berbaro@berbaro.com

**LANA**
-Eskaerak
-Eskaintzak
**ETXEBIZITZAK**
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
**IRAKASKUNTZA**
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
**MOTORRA**
-Salgai
-Erosi
**LOKALAK**
-Errentan eman
-Errentan hartu
**ANIMALIAK**
-Salgai
-Erosi
**BESTEAK**
-Berba egin
-Salgai

Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

**Zure iragarkia argitaratzeko:** Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira.Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

IRAGARKI PARTIKULARRAK
Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

IRAGARKI PROFESIONALAK
Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatzeko honako telefonora deitu: 94 621 79 02

## LANA

### ESKAERAK

Pertsona euskalduna behar da dendari lan egiteko.
Tel.: 943 77 00 34 / 943 77 13 52

Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Tel.: 618 896 591

**Iurreta.** Jatetxe batean asteburuetan lan egiteko lagun bat behar da.
Tel.: 94 681 78 47

**Elorrio.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko: garbiketak eta plantxa.
Tel.: 665 701 825 (Patxi)

**Durangaldea.** Durangaldeko Geu Be elkarteak gizonezko begiraleak behar ditu arratsaldez lan egiteko. Interesatuek bidali curriculuma:
afngeube@yahoo.es.
Tel.: 94 621 72 68

**Zornotza.** Mekanikoa behar da. Ezinbestekoa da Erdi mailako edo Goi mailako zikloa eginda izatea. Informatikako ezagutza baloratuko da. Erreferentzia: 53. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Aseguru merkataria behar da. Ordezkaritza eta bezeroen bilaketa. Derrigorra da diploma izatea, esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 74. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Modelatzailea behar da 3Dn egingo den animazino luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa. Erreferentzia: 78. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango**. Blend Shapes teknikoa behar da 3Dko luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa eskaintzen da. Erreferentzia: 79. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Set Up teknikoa behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 81. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Testurizatzailea behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 87. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durangoko Plateruena Kafe Antzokiak**
jatetxean lan egiteko zerbitzariak behar ditu. Giro euskaldunean lan egin gura baduzu, jarri gurekin harremanetan. Harremanetan jartzeko (Maria):
**Tel.: 94 603 03 00**
**94 681 42 78**
antolaketa@plateruena.org

**Durango.** Ileapaindegirako laguntzailea behar da. Derrigorra da titulazinoa izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 121. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Aseguru merkataria behar da, bezeroak bilatu eta mantentzeko. Derrigorra da gaztelera menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 153. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango**. Enpresetan hainbat helburutako aleman eta ingeles klaseak emateko irakaslea behar da. Derrigorra da ingeles eta alemaniera menperatzea, hezkuntza ezagutzak izatea, informatika eta interneta menperatzea, gida-baimena izatea eta esperientzia . Erreferentzia: 14.788. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Berriz.** Jatetxe bateko jantokian lan egiteko pertsona bat behar da. Astearteak jai. Derrigorra da Durangaldean bizitzea, kotxea eta karneta izatea, eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 14.786. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

**ANTZERKIA gustoko baduzu** anima zaitez Elorrioko 'Arrapaladan' taldean parte hartzera
arrapaladan@hotmail.com
635 74 49 71

**Iurreta**. elektrikaria behar da tentsio baxuko instalazio elektrikoetarako. Egun osoko lan-aldi zatitua. Derrigorra da gutxienez 36 hilabeteko esperientzia izatea, gida-baimena izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 13.842. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango**. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 14.113. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Zerbitzaria behar da barran eta mahaiak zerbitzatzen aritzeko. Derrigorra da Durangaldean bizitzea eta esperientzia izatea. Lan-egun osoa, astean bi egun libratuz. Erreferentzia: 14.461 SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

### ESKAINTZAK

Turismo ikasketadun neska turismo eta ostalaritza arloan lan egiteko prest: hotelak, agentziak, tabernak...
Tel.: 646 841 206

Neska umeak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo tabernan lan egiteko prest. Tel.: 690 370 178

Denda eta enpresen kontabilitate eta fiskalitatea eramateko prest nago. Ekonomikoa. Tel.: 635 715 928

Neska gaztea portala garbitzeko prest dago. Tel.: 666 691 003

Lan Harremanetan diplomadun neska durangarra administrari, kometzial, harreragile... moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna.
Tel.: 677 153 135

Garbiketan edo/eta ume zein adinekoak zaintzeko prest nago. Egun erdiz edo osoan.
Tel.: 680 302 861

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Teknikari laguntzaile klinikoa adineko pertsonak zaintzeko edo lagun egiteko prest dago. Tel.: 636 025 493

Durangar bat dendari moduan lan egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest.
Tel.: 637 513 429

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 650 102 636

Neska euskalduna dendetan garbiketan edo jatetxeetan (zerbitzari moduan) lan egiteko. Edozein ordutegitan eta berehala lanean hasteko prest. Tel.: 663 657 288. Izaskun.

## ETXEBIZITZAK

### SALGAI

**Otxandio**. Etxebizitzak salgai. Salmenta zuzena, konstruktorearekin. Prezio eta etxe interesgarriak.
Tel.: 676 018 586

**AUKERA**
Durangon bideokluba traspasatzen dut. Gozokiak saltzeko gunea dauka eta vendingeko makina bat kanpoan.
**27.000 euro**
(lehen 42.000). Zonalde interesgarria.
**Tel.: 658 724 574**

**Elorrio.** Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Guztiz berriztuta, oso eguzkitsua eta polita.
Tel.: 617 787 165

**Berriz.** Etxea salgai. egongela, bi logela, sukaldea eta komuna. Berriztuta, berogailuz eta altzariz hornitua. Tel.: 667 064 942. Olatz.

**Durango**. Pisua salgai Artekalen. 6 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela. Etxebizitza 2 egiteko aukera. Tel.: 657 791 028

## INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
**Fernando Uribe**
Barrenkalea, 15 - bajo - Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

**ETXEBIZITZA BERRIAK**

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatuak eraikitzen.
- Erretentxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin salgai.

**ETXEBIZITZA SALGAI**

- Alluitz: Halla, sukalde jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Montebideo: Halla, sukalde-jantokia, logela bakarra, komuna eta balkoia. Etxe jantzia, igogailua. Eraikuntza barria.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Etxe jantzia, igogailuarekin eta berogailua hiriko gasarekin.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. ( 135 m2 ).
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Montebideo: Halla, egongela- jangela, sukaldea, 5 logela, 3 komun. Terraza eta ganbara. 150 m2.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun. 2 Garaje. Etxea guztiz jantzia.
- Abadiño – Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Abadiño: Berriztatzeko. 3 solairuko etxea.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Hobekuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela, eta komuna. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzia.
- Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.

**Abadiño**. Pisua salgai. 4 logela, sukaldea, bainugela eta egongela; garaje itxia, txokoa eta terrazarekin. Tel.: 94 681 70 67

## ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Pisua alokagai. 87m2. Tren geltokitik hurbil. 20:00etatik aurrera deitu. Tel.: 94 622 56 73

**Durango.** Pisua konpartitzeko pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 661 847 937

Torreviejako Bungalo bat alokagai. 3 logela, terraza, solariuma, igerilekua eta gune berdeak. Tel.: 615 779 622

**Durango.** Pisu bat alokagai. 2 logela, saloia eta sukalde hornitua. Tel.: 620 773 947

**Zaldibar.** Apartamentua alokagai; bikote batentzako modukoa. Leku onean. Tel.: 665 707 664

**Durango.** Lau logelako pisu bat alokagai. 750 euro hilean. Konpartitu daiteke. Tel.: 666 691 003

**Durango**. Hiru logelako pisua alokagai. 750 euro hilean. Tel.: 666 691 003

**Apartementua** alokagai Llanesen. Tel.: 637 916 892. Deitu 14:00etatik aurrera.

## ERRENTAN HARTU

**Durango.** Bikote gaztea alokatzeko pisu bila.Hilean 500 euro inguru.. Tel.: 647 897 647

**Durangaldea.** Alokairuan hartzeko baserri baten bila nabil. Tel.: 671 098 553

**Durango.** Konpartitzeko pisu edo etxe bila nabil.Tel.: 666 202 273

**Durango.** Alokatzeko pisu bila gabiltza.Tel.: 659 088 185

**Elorrio.** Bikote gaztea gara, eta alokatzeko etxe bila gabiltza. Tel.: 677 483 917

**Durangaldea.** Alokatzeko pisu bila gabiltza; ama eta alaba gara. Tel.: 617 649 830

# IRAKASKUNTZA

## HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingelesa eta beste irakasgai batzuk). Tel.: 94 621 82 57 (Mari Karmen)

Hizkuntza akademia batek ingeles maisua behar du. Hasiberritik aurreratura. Tel.: 606 878 521

## EMAN

Klase partikularrak ematen dira, euskeraz eta gazteleraz. Talde murriztuak. Esperientzia handia. Tel.: 666 691 003

Elorrion eta Durangon Matematika klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 636 025 493

Berezitasunak dituzten haurrekin lan egindako neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest dago. Tel.: 650 874 594

# MOTORRA

## SALGAI

**Peugeot 205 diesela salgai.** 1.000 euro. Tel.: 679 475 785

**Seat Altea 2005 TDIa salgai.** Aukera onekoa. Tel.: 675 212 960 / 696 135 954

**Maxiscooter Yamaha Tmax 500 ABS** salgai. 2006 urtekoa. Extra guztiekin. 5.600E. Tel.: 628 413 848

**Fiat Grande Punto 1.4** salgai. 75 zaldi Gasolina. 2006 urtekoa. Egoera onean. 5.000E. Tel.: 695 594 105

**Renault Megane 1.9 TD**a salgai. 1996 urtekoa. Oso ondo dabil. 1.400E. Tel.: 600 611 601

**Fun roller** autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD. 127 zaldi. 24.000E. Tel.: 690 827 252 / 94 622 50 78

**Lancia Libra SW (familiarra)** salgai. Egoera onean. 8 urte. 4.500E. Tel.: 94 622 56 73

**GOLF GTI**a salgai 140CV 80000Km 7000E. Tel.: 687 539 898

# ANIMALIAK

## SALGAI

**Alemaniar artzai-txakurrak.** Kumak salgai ditut, pedigreearekin. Tel.: 655 749 239

**Arratoi-txakur arrazako bost txakurkume** ditut salgai. Tel.: 94 682 74 41

**Euskal artzai-txakurrak.** Kumak salgai ditut. Tel.: 619 887 513

# LOKALAK

## ERRENTAN HARTU

**Durango.** Garaje itxia alokatuko nuke lurretan edo Alluitz kale inguruan. Tel.: 615 392 681

## ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Garagea alokagai Muntsaratzen. Tel.: 634 403 450

**Elorrio**. Garaje itxia alokagai, plazatik gertu. 60 euro hilean. Tel.: 660 458 756

**Elorrio.** Garaje itxia alokagai, Ferialean. 60 eurotan. Tel.: 675 700 321

# BESTEAK

## SALGAI

**Trikitixa.** 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

**Telebista.** 32 pulgadakoa, SANYO marka. TDTa badauka. Oso egoera onean. Tel.: 655 739 792

**Sutarako pago eta haritz egurra.** Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

**Basoa.** 42.000 m-ko basoa salgai. Orixol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

**Garbigailu eta hozkailua** salgai. Oso egoera onean. Tel.:639 740 049

**Zaldibar.** 13.500 m-ko lusaila salgai. Eguzkitsua eta oso ondo komunikatua. Lursailaren ondoan ura eta argia. Tel.: 675 717 281

## EROSI

**Basoa.** Lur zati bat erosiko nuke Durangon edota Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

## BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Karabana eta autokarabanak godetzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Garbitokia, gurpil eta balazten ikuskapena, uraren karga eta lanzaren olioztatzea. Tel.: 685 752 339

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469


Argiñeta
Urarka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41
Faxa: 94 623 16 30 • argineta@euskalnet.net • www.argineta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO
18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 METROTARA.

BERRIZ
PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza.
P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO
PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO
C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukaldea eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria.
P79: 85 m2. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Atikoa. Garajea eta trastelekua. Ia berria.

DURANGO
P81: 90 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua.

ELORRIO
P80: 72 m2. Ia berria. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
P83: 92m2. Dena barriztuta. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Guztiz jantzia. Zentrikoa.
P77: 68 m2. Guztiz barriztatuta. 2 logela, egongela-sukaldea eta bainugela. Jantzia. Oso polita. Berogailu radiantea. 90m2-ko lorategia.
P76: 44 m2. Berria. Atikoa igogailuarekin. Logela bakarra, egongela, sukaldea eta bainugela. Gas naturaleko berogailua.
P65: 30 m2. Ia berria. Atikoa: logela 1, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. Prezio ona. Gas naturaleko kalefakzioa.
P69: 63 m2. Atikoa, jauregi berritu batean.Logela bat, sukaldea, egongela eta komuna.



ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

• Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
• Mañaria: Ia berria. Bizitzen sartzeko prest.
• Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko, erosi ia alokairu gisa.
• Durangaldea: Baserriak eta txaletak aukeran.
• Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
• Aramotz: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
• Aramotz: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
• Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela, komuna eta **balkoia**. Handia eta eguzkitsua.
• Ezkurdi: 3 logela, egongela, sukaldea eta barriztatu beharreko 2 komun.
• Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
• Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
• Landako: 3 logelatako etxebizitza dotorea.2 komun, egongela, sukalde jantzia eta **2 terraza**.Garaje eta trastelekua.Bizitzen sartzeko prest.
• Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
• Frantzisko Ibarra: Logela bakarra. Guztiz berriztua. Garajea eta trastelekua.
• Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
• San Inazio: 2 logela. Azkeneko solairua. 80 m2-ko **TERRAZA**. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
• San Inazio: Beheko solairua. Pertsona nagusientzako egokia. Gurpil-aulkiei egokitutako ateak dituen etxebizitza.Hego-Mendebalderuntz orientatua.
• Herriko Gudarien kalean: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. **TERRAZA** handia.
• Tronperri: Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Prezio onean.Bizitzen sartzeko prest.
• Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. **Balkoia**. Garajea eta trastelekua.
• Landako Txibitena: 2 eta 3 logela. Ezin hobeak.



ETXETXO G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4 etxetxo@hotmail.com
Tel.: 94 681 40 49 DURANGO

ETXEBIZITZA SALGAI

• Goienkalen: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. 186.300 €.
• Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
• San Ignazion: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
• Frantzisko Ibarran: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
• Murueta Torren: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
• Mendizabalen: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
• Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
• Zeharkalean: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Komuna eta egongela. Ganbara. 210.350 €.
• Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
• Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
• Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.
IURRETA
• Bidebarrietan: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Despentsa. Igogailua.234.400 €.
• Maspe kalean: 70 m2.3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.Igogailua.235.000 € ( 39 mill ).
MATIENA
• 3 logela. 210.000 €
ABADIÑO
• Estreinatzeko. Logela 1 edo 2ko etxebizitzak. Egongela, 2 komun eta sukalde hornitua. Ganbara eta garajea. Guztiz kanpora ematen du.
MAÑARIA
• 2 solairuko etxea 1.400 m2-ko lur-sailarekin.
BERRIZ
• San Antonion: Berriztatuta. 210.400 €.
ZALDIBAR
• 3 logela. Trastelekua. Bizitzen sartzeko prest. 201.300 €.
ATXONDO
• Duplexa: 120 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela.
ELORRIO
• Estreinatzeko. 336.000 €.
ALOKAIRUAN
• ABADIÑO: Baserria ortuarekin. 4 logela.



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO
• Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
• Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
• Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
• Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
• Barrenkale: Azkeneko apartamentuak.
• Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
• Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
• San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeko.
• Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
• Tabira: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
• Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
• Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
• Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA
• 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO
• Txinurrisolo: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

# Jatetxe gida



## Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik. Pintxoak. Eguneko menua. Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



## Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita.Janariak jantokian: asteartetik igandera. Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.Razioak terrazan.



## Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta martitzen gabaz itxita.



## Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.



## Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia. Eskontzak, jaunartzeak, enpresako bazkariak... Eguneko menua, karta, menu bereziak.



## Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.




## Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik. Astelehen eta astearte gauez itxita. Astelehenetik ostiralera eguneko menua 11€

**Hemen agertu gura badozu,**

**DEITU**

**94 621 79 02**

anboto komunikabideak
Egoitza: Santa Ana plaza, 6 48200-Durango (Bizkaia) Tel.: 94 623 2523 Anboto Irratia: 94 623 80 40 Harpidetzak: 94 681 65 58
Publizitatea: 94 621 79 02 publi@anboto.org Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 9.200 ale


AKUILUAN

■ Markel Onaindia ■ Argazkia: Iban Gorriti

# "1985az geroztik praka zuriak jantzi barik egon naz"

Urte asko jokatu barik egon ondoren, txapela jantzi dau Juan Pedro Lejarreta "Kapero" berriztarrak

**Berrizko jaietako pilota txapelketa irabazi dau Juan Pedro Lejarreta "Kapero"-k, Eñaut Berasaluzegaz batera. Aurreko zapatuan jokatu eben finala, eta 22-15 gailendu jakezen aurkariei. Urte asko eroan ditu berriztar honek pilotan jokatu barik, eta bere jokoak espektazino handia sortu dau herrian.**



***Zelan joan zen zapatuko finala?***
Hasieratik gogorra izan zen. Finalerdietan justu-justu irabazita pasatu ginen finalera; gainera, Eñautek eskumako eskua minduta zeukan. Partiduaren erdialdera, abantaila txiki bat hartu genduen, eta azkenean 22-15 irabazi genduen. Gustura jokatu neban, konfidantzaz. Jente asko egon zen frontoian, giroa be oso ona izan zen.

***Partiduaren aurretik prestaketaren bat egin zenduen?***
Goizean elkarregaz egon ginen, pasioan ibili ginen. 6 bat kilometro egin genduzen elkarregaz, eta finalaren inguruan berba egiteko aprobetxatu genduen. Eskuko minaz zegoela abisatu ninduen, eta bere atzean adi egoteko esan eustan.

***Serio hartu zenduen txapelketa orduan...***
Bai, han ez zegoen bromarik! Frontoia beteta zegoen, eta kinielak be piloa egin ziren: 200 eurotik gora atera ei ziren.

***Zergaitik emon zenduen izena?***
Tuteko partida bat jokatzen genbilzen, eta zera esan eustan: "Tutean bakarrik ez, pilotan be irabazi behar dogu". Nik hasieran ezezkoa emon neutsan, baina azkenean konbentzitu ninduen. Katxondeoan hasi arren, txapelketan ez zegoen bromarik.

***Txapelketan hasi zinienean, itxaroten zenduen txapela irabaztea?***
Nik konfidantza handia eduki dot Eñautengan; banekien neuk aguantatuz gero, aukera izango genduela. Dena dela, finalerdi eta finalean pilotan asko egin behar izan genduen, lepoa ondo bustita.

***Esan deuskuenez espektazino handia eragin dau herrian zure jokoak...***
Sinistu be ez neban egiten. Jente piloa egon da partiduetan; finalean jentea atetik sartu ezinik egon zen. Aurkariek be animazino handia eduki eben.

***Noiztik jokatzen dozu pilotan?***
Mutikotatik jokatu izan dot. 1985ean be 'relampago' izaerako torneo bat irabazi neban Berrizen, eta geroztik praka zuriak jantzi barik egon naz.

***Eta oraindino sasoiko zagoz...***
Bueno, bueno... Ni ez naz lehengoa, baina Eñautek animatu ninduen, eta halan irten jaku.

***Eñautek eskua minduta zeukala aipatu dozu lehenago. Zuk minik igarri dozu?***
Ez, ezer ez dot igarri. Nik horretan zorte handia daukat, esku gogorrak daukadaz-eta. Esparatrapurik be ez dot ipini eskuetan.

***Zure bikotea be primerakoa, ezta?***
Bai, oso gustura ibili naz Berasaluze VII.gaz; txapelketa handia egin dau, gainera. Profesionala izanikoa da, eta oraindino be ederto jokatzen dau.

***Zer daukazue Berrizen hainbeste pilotari irtetzeko?***
Hemen beti egon izan dira pilotari profesionalak, baita ni gaztea nintzenean be: Azpiri, Berasaluze... Beti egon da afizino handia. Eztabaida bat konpontzeko be, apustu egiteko erabili izan dogu, "Mano-manoan" adibidez.

***Hurrengo urtean be parte hartuko dozu? Txapela defendatu beharko dozu, ezta?***
Baleiteke. Gainera, daukadan bikoteagaz, aukerak izango geunkez berriro. Pelotari bikaina da Eñaut.

## Juan Pedro Lejarreta

- **Berriztarra da, 57 urte ditu.**
- **Pilota torneoa irabazi dau**

LAUHORTZA



Joxe Garaizabal
Irakaslea

## Palestinari buruz

Urtarrilak 19. Gazako palestinar baten gogoeta etxe birrinduari begira: 'Berun urtua' operazioa. 22 egun. Aire-bonbardaketak, artilleria....

Israel VS Palestina: Batak 88 hegazkin eta tankeak, besteak harriak. Batak 180 mila militar, besteak 20 mila militante. Batak 13 hildako, besteak 1.500dik gora. Batak 300 bat zauritu, besteak 5.300 bat. Bata inbaditzailea, bestea inbaditua. Batak azpiegiturak birrindu, besteak eraiki beharra. Gazako iturri ofizialen arabera, 2.000 milioi dolar.

**"Aberri bat, okupatuta baldin badago, beti maite izango dozu"**

Mahmud Darwish poeta palestinarrak hau dino:

*Preso dagoen gure aberriarentzat / maitasun patsez hiltzeko askatasuna.*

*Harri bitxia bere gau odoltsuan / gure aberriak argitsu dirau urrunean, baina gu bertan / eten barik itotzen gara.*

*Berba arinen arteko bidaiariak: / hartu egizuez zuen izenak eta joan zaiteze, / kendu egizuez zuen orduak gure denboratik eta joan zaiteze, / hartu egizue gura dozuena itsasoaren urdinetik eta oroitzapenaren hareatik, / hartu egizuez gura dozuezen argazki guztiak jakiteko / ez dozuena inoiz jakingo: / gure herriko harriak zelan eragiten dauen zeru sabaia. .../...*

*Gustuko ez dozuena daukagu: etorkizuna / eta gure lurrean ereiten doguna.*

*Aberri bat, maitatu leiteke edo ez, baina aberri libre bat. Okupatua badago beti maite izango dozu.*

Argi dagoena zera da, gaur egun gerrak bakeak baino diru gehiago emoten dauela.

